

GRADUA: INGENIERITZA ZIBILA  
**GRADU AMAIERAKO LANA**

***BALMASEDAKO HIRIBILDUAN UR LASTERREKO  
UBIDEAREN ERAIKUNTZA***

**Ikaslea:** CAMPO SAINZ, AITOR

**Zuzendaria (1):** MADRAZO URIBEETXEBERRIA, ENEKO

**Ikasturtea:** 2017-2018

**Data:** Balmasedan, 2018-ko ekainaren 28a

## LABURPENA

Proiektu honetan Balmasedako hiribilduan ur lasterreko ubide bat eraikitzeko behar diren xehetasun guztiak adieraziko dira. Helburu nagusia, Balmasedan eta batez ere Enkarterrietan gero eta gehiago praktikatzen ari den kirolean jarduteko beharrezkoak diren instalazioak sortzea da. Proiektua, Balmasedan dagoen Fabio Murga industrialdean kokatzen da, fabrikaren lekualdatzea aprobetxatuz. Kirol jarduera era egokian praktikatze beharrezkoa den ur kantitatea lortzeko, desbiderapen ubide bat eraikiko da. Ubide horren bitartez Kadagua ibaiko ibilgutik hartutako ura, biltegi batean bilduko da. Biltegi honetatik, lehiaketetarako baldintzak beteko dituen ur lasterreko ubidea irtengo da, beheko ur biltegiraino luzatuko dena. Goiko biltegitik beheko biltegiara ur lasterreko ubidearen luzeran zehar igarotako ura berriz ere goiko biltegiara bideratzeko asmoz, ponpaketa sistema bat diseinatuko da. Ponpaketa sistema honek 4 ponpa izango ditu. Horietatik hiru funtzionatzen egongo dira eta bestea mantenurako edo matxuren kasuetan erabiliko da. Halaber, kirol jardueran arituko diren kirolariak biltegi batetik bestera igarotzeko, igotzaile mekaniko bat jartzea aurreikusi da. Mantenurako lanak edo ura aldatu nahi den kasuetarako, lurperatutako hustuketa ubide bat jarriko da. Bestalde, hiru eraikin diseinatuko dira. Horietariko bi, erabiltzaileek kirol jarduera amaitu eta gero dutxa hartzeko aldagelak izango dira eta bestea kafetegia bat. Eraikuntza hauen egitura metalikoa izango da. Ur hotza zein ur beroko instalazioak, saneamendu sarea eta argiztapena dimentsionatuko dira. Eta ingurune guztiak landarez eta belarrez loreztatuko dira instalakuntzak ingurunearekin bateratzeko asmoarekin. Azkenik, instalazioetara gerturatutako erabiltzaileak beraien kotxeak usteko aparkaleku bat diseinatuko da, bere bide zoruaren sekzio erresistentea kalkulaturik.

**Gako hitzak:** ubidea, ur lasterrak, biltegia, ponpak, kirol-instalazioak, aldagela, kafetegia eta aparkalekua.

## RESUMEN

A lo largo de este proyecto se harán las especificaciones necesarias para la construcción de un canal de aguas bravas en la Villa de Balmaseda. El objeto de dicho proyecto es crear unas instalaciones para la práctica de un deporte al alza en Balmaseda y las Encartaciones. Este proyecto se llevará a cabo en el entorno de la fábrica industrial Fabio Murga, aprovechando el traslado de la misma. Para conseguir la cantidad de agua necesaria para la correcta realización de las actividades deportivas se va a construir un canal de desvío. El agua obtenida del cauce del río Cadagua se almacenará en un gran depósito. Desde este depósito saldrá un canal de aguas bravas con las características necesarias para celebrar competiciones y terminará en el depósito inferior. El agua trasladada a lo largo del canal de aguas bravas desde el depósito superior hasta el depósito inferior será devuelta a su posición inicial mediante un sistema de bombeo. Este sistema de bombeo constará de 4 bombas, 3 de ellas estarán en continuo funcionamiento y la restante se utilizará únicamente en caso de avería o mantenimiento. Así mismo para que los deportistas que utilicen el canal de aguas bravas puedan trasladarse cómodamente desde un depósito hasta el otro se ha previsto la instalación de una cinta transportadora. Para mantenimiento del canal o cambio de agua se construirá un canal enterrado de vaciado. Por otro lado, se van a construir 3 edificios. Dos de ellos serán para que los deportistas una vez terminada su actividad puedan ducharse y en el edificio restante estará situada la cafetería. La estructura de estos edificios será metálica. Se dimensionarán las instalaciones de agua fría, agua caliente e iluminación. Alrededor de todas las instalaciones se sembrarán jardines con el fin de lograr unas instalaciones unificadas con el entorno y reducir el impacto ambiental. Finalmente, para que los usuarios que se acerquen hasta las instalaciones puedan dejar su coche, se construirá un aparcamiento.

**Palabras clave:** canal, aguas bravas, bombas, instalaciones deportivas, vestuario, cafetería y aparcamiento.

## ABSTRACT

This project details the requirements and specifications for building a white-water canal in the Village of Balmaseda. The aim is to create the required facilities for practicing a sport on the rise in Balmaseda and Encartaciones. This project will be located in the actual placement of the soon moving Fabio Murgá's manufacturing facilities. In order to make available the required amount of water to enable all the sportive activities, a diversion canal shall be constructed. Water diverted from Cadagua River will be stored in a huge deposit. From this deposit, the white-water canal shall conduct the water towards the lower level deposit. The white-water canal shall fulfill the necessary standards in order to allocate competitions. A pumping system shall return the water to the higher level deposit. This pumping system shall consist on 4 pumps, 3 for continuous usage, and a fourth one for redundancy. Together with the pumping system, it is also planned to install a conveyor belt for an easier transportation of the users from the lower to the higher level. For maintenance tasks or water replacement, an additional underground draining canal shall be constructed. Besides the white-water canal, 3 buildings shall be constructed. Two of them shall accommodate facilities required by the users such as showers. The third one will contain the cafeteria. For the aforementioned 3 buildings, calculi have been carried out not only in terms of structure but also in terms of supplies, sanitation and inner illumination. In order to minor the environmental impact, gardens shall be grown all around de facilities. Finally, for users arriving by car, also a parking lot shall be constructed.

**Keywords:** canal, whitewater, pumps, sports facilities, locker room, cafeteria and parking.

GRADUA: INGENIERITZA ZIBILA

# GRADU AMAIERAKO LANA

## *BALMASEDAKO HIRIBILDUAN UR LASTERREKO UBIDEAREN ERAIKUNTZA*

### *1. DOKUMENTUA – MEMORIA ETA ERANSKINAK*

**Ikaslea:** CAMPO SAINZ, AITOR

**Zuzendaria (1):** MADRAZO URIBEETXEBERRIA, ENEKO

**Ikasturtea:** 2017-2018

**Data:** Balmasedan, 2018-ko ekainaren 28a

# MEMORIA

1.	AURREKARIAK.....	5
1.1.	Geografia.....	5
1.2.	Demografia.....	5
1.3.	Egitura ekonomikoa .....	6
2.	PROIEKTUAREN XEDEA ETA ZERGATIA.....	7
2.1.	Xedea.....	7
2.2.	Erabiltzaileak .....	7
3.	KOKAGUNEA.....	9
3.1.	Sarrera .....	9
3.2.	Kokapen planoak.....	10
3.3.	Aukerak eta irizpideak.....	11
3.3.1.	A aukera: .....	11
3.3.2.	B aukera:.....	12
3.3.3.	C aukera:.....	13
4.	ORUBEAREN DESKRIBAPENA.....	15
4.1.	Hidrografia.....	16
5.	DISEINUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA .....	17
5.1.	DISEINURAKO IRIZPIDEAK .....	17
5.2.	LEHIAKETETARAKO EGOKITZAPENA.....	18
6.	UR ZIRKUITUA.....	19
7.	UBIDEAREN OSAGAIEN DESKRIBAPENA.....	20
7.1.	Desbiderapen ubidea .....	20
7.2.	“Tajadera” motako konporta .....	20
7.3.	GOIKO UR BILTEGIA.....	23
	Biltegiaren eraikuntza .....	24
	Biltegien drainatze sistema .....	26
7.4.	UR LASTERREKO UBIDEA .....	27
	Ur lasterreko ubidearen eraikuntza .....	27
	Ubidearen drainatze sistema .....	27

---

7.5.	BEHEKO UR BILTEGIA .....	28
7.6.	HUSTUKETA UBIDEA.....	29
7.7.	PONPAKETA ZENTRALA .....	30
	Zehaztapen Teknikoak.....	30
7.8.	IGOGAILU MEKANIKOA .....	31
7.9.	ALDAGELAK .....	32
	Egitura metalikoa .....	32
	Itxitura .....	32
7.10.	UR HORNIKETAKO SAREAREN INSTALAKUNTZA .....	34
	7.10.1. UR HORNIKETARAKO SAREAREN DISEINURAKO OINARRIAK .....	34
	7.10.2. UR HOTZEKO HORNIKETA SAREKO SISTEMA.....	34
	7.10.3. UR BEROKO HORNIKETA SAREKO SISTEMA .....	34
7.11.	SANEAMENDU SAREKO INSTALAKUNTZA .....	36
	7.11.1. SANEAMENDU SAREAREN DISEINURAKO OINARRIAK .....	36
7.12.	INSTALAZIO HIDRAULIKOEN MANTENIMENDUA .....	37
7.13.	APARKALEKUA .....	38
7.14.	OINEZKOENTZAKO PASAGUNEAK .....	39
7.15.	GUNE BERDEAK .....	40
7.16.	ITXITURA PERIMETRALA.....	42
7.17.	ARGIZTAPENA.....	43
7.18.	ARRISKU KIROLAK PRAKTIKATZEKO GUNEA.....	44
8.	BIDERAGARRITASUNA .....	45
	8.1. Bideragarritasun teknikoa .....	45
9.	LEGE INGURUA .....	46
10.	BIBLIOGRAFIA .....	48
11.	DOKUMENTUEN ZERRENDA.....	49



## 1. AURREKARIAK

Memoria deskribatzaile honen helburua, Balmasedako hiribilduan ur lasterreko ubide baten eraikuntzarako beharrezkoak diren oinarritzko datuak zehaztea da.

Bizkaiko Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin batera, Bizkaian oso ezaguna ez den baina etorkizunerako proiektio handia duen kirol jarduera hau praktikatzeko instalakuntzen diseinua bultzatzeko plana sortzea aurreikusi du.

Enkarterrietako kapitala den Balmasedako hiribilduan, Bartzelonan 1992.urtean ospatutako joko olinpikoetarako eta Zaragozako 2008.urteko Expo-rako eraikitako ubideen antzerako dimentsioak eta ezaugarriak dituen instalazioak diseinatzea aurreikusi da. Hau dela eta, Balmaseda Munduko Kopako Slalom txapelketako egoitza edo Olinpiadetarako azpi-egoitza izateko aukera izango du.

Horretarako, 277 metroko luzera duen ur lasterreko ubidea eraikiko da, puntu gorenetik baxuenera 4,8 metrotako jauziarekin. Ubidearen hasieran eta amaieran bi ur biltegi handi eraikiko dira.

### 1.1. Geografia


Balmasedak Artzentales, Sopuerta eta Zallarekin egiten du muga ekialdean; hegoaldean, berriz, Burgos probintziako Mena Haranarekin.

Udalerrria lurralde menditsu batean dago kokatuta, Ordunteko Mendien luzapenean. Kolutza, Canto, Terreros eta Garbea gailurrak azpimarra daitezke. Handik ibarra Kadagua ibairaino hedatzen da, Sabugal mendia, Tueros zelaia eta Arbalitza mendia sortaldean utzita. Kadagua ibaiak ibar estua sortzen du, eta Acebo, Kolutza, Tueros eta Angostura erreketako urak hartzen ditu.

### 1.2. Demografia

Kadaguan zehar lantegiak jartzeak biztanleria erakarri izan du betidanik, bai eskualde bereko nekazal izaerako udalerrietatik, bai mugakide diren Burgoseko haranetatik. Beraz, 70. hamarkada arte lantegiek biztanleriaren etengabeko hazkundera eragin zuten.

Ondoren, krisi ekonomiko garai desberdinek etorkinen kopurua murriztu zuten eta gazteak beste udalerrri zein eskualdeetara abiatu behar izan ziren lan bila. Horrek guztiak, jaiotze tasa baxuarekin batera, biztanle kopuruaren etengabeko jaitsiera eragin dute, baita adin piramidean nabari den biztanleriaren zahartzea ere.



### 1.3. Egitura ekonomikoa

Aspaldi, balmasedar ekonomia bi arlotan oinarritzen zen: metalgintzan eta altzarigintzan. Metalaren industria galgaketa eta laminatzean espezializatu zen. Altzarigintza, bai komertziala bai artisau-lana, berriz, antzinako ohitura izan da hiribilduan; izan ere, Balmaseda Altzariaren Hiria izenez ezagutzen da oraindik ere.

Gaur egun, Balmasedako ekonomia hirugarren sektorean oinarritzen da, zerbitzuen alorra baita garapen ekonomikoaren ardatz nagusia.

Hala ere, hiribilduko egitura ekonomikoa hiru sektore klasikoetan bana dezakegu: lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena.

Lehen sektorea: Atzerapen ekonomiko izugarrian murgilduta dago eta pixkanaka desagertzen joango da; izan ere, biztanle gutxik egiten dute lan sektore honetan eta nekazaritza-ustiategi kopuruak beherakada handia jasan du. Eremu aldapatsua izanik, azalera osoaren % 4 baino ez da nekazaritzarako erabilgarria, eta eremu horren zatirik handiena baratzeek eta tradiziozko produktuek (artoa, patata, fruta-arbolak eta txakolina egiteko mahatsondoak) betetzen dute. Bestalde, bazkak eta landak ere ugariak dira, eta abeltzaintzaren oinarri bilakatzen dira, abelgorriak nagusi direlarik. Aipatu beharra dago basoberritzearen garrantzia handiagotzen ari dela (lurren % 70 inguru).

Industria eta Eraikuntza: Balmasedako oinarri ekonomikoaren zati handi bat sektore honek dauka. Bi aloren inguruan espezializatzeko joera da nagusi: metala eta altzariak. Metalgintzak (Fabio Murga, Trameinsa, etab.) galdaketa eta laminatuei ekiten die batez ere.

Altzarien sektoreak (komertziala eta artisau-lana) historia luzea du udalerrri honetan, izan ere, inguruko basoek eskaintzen dituzten baliabideek altzarigintzari mesede handia egin diote. Udalerrriko industria garapena sustatzeko, El Páramo Industrialdea sortu da.

## 2. PROIEKTUAREN XEDEA ETA ZERGATIA

### 2.1. Xedea

Proiektu honen helburu nagusia, Balmaseda-ko hiribilduan ur lasterreko ubide bat eta bere ingurunea diseinatzea eta eraikitzea da. Honekin, Balmaseda eta aldi berean Enkarterriak aisiarako eta jolaserako ingurune batez zuzkitzea.

Halaber, zeharkako helburu batzuk lortuko dira:

- Balmaseda-ko herrialdean kirol aniztasuna handitzea, jendea praktikatzen ohituta ez dagoen beste kirol baten instalakuntzak eraikitzean.
- Balmaseda-ko garapen ekonomikoan aurrera-pausu handia suposatuko du, kirol honen zaleak eta kirolariak herrira hurbilduko direlako, taberna, jantoki zein hotelak betez.
- Bizkaian eta hurbileko beste herrialde batzuetan praktikatzen ez den kirol berri bat praktikatzeko aukera ematea. Instalazioan emango diren ikastaroak eta ontziak alokatzeko aukera dela eta.
- Proiektu honekin lortuko den beste helburu positibo bat, eraikuntzaren inguruko flora eta fauna indartzea da, gunearen ingurumen aniztasuna indartuz.

Proiektu honen bitartez Kadagua ibaiko ingurunean sortuko den instalakuntza ur lasterreko piraguismoaren irakaskuntzarako, entrenamendurako eta lehiaketarako egokituta egongo da. Ubidearen luzera zehar, ur laster eta ur geldoko gune ezberdinak sortuko dira, slalomeko lehiaketak bertan gauzatzea baimenduko duten abiadura eta norabide desberdineko lasterrak sortuz.

Instalakuntzaren exekuzio eta martxan jartzea ahalik eta hoberena lortzeko asmoz, eraikuntzarako beharrezkoak diren obren balorazioa, diseinua eta justifikazioa proiektuan hartuko dira kontutan.

### 2.2. Erabiltzaileak

Ur lasterreko eta bere ingurunearen erabiltzaileak jarraian azaldutakoak izango dira:

- Balmasedako biztanleria eta bere ingurune hurbila (Bizkaiko komunitate autonomoaren biztanleria 1.150 milioikoa da).
- Bilbotik 30km kokatuta egoteak, eta Bilbo beste hiri handiekin dituen autobide, autopista, trenbide eta bestelako konexioak Balmasedatik distantzia handiagotara (300km) dauden herrien biztanleria ere, ubidearen erabiltzaileak izan daitezke. Balmasedatik hurbilen dagoen ur lasterreko ubidea Zaragoza hirian kokatuta dago, beraz, Euskal Herriko eta bere ingurunean dauden komunitate ezberdinentzat mota honetako instalazio hurbilena bilakatzen du.

- Bizkaiko komunitate autonomoak dituen ohitura popularrak, ingurumen baliabideak eta ondare kulturak erakarrirako turismoak, ur aktibitate honek bere oporretarako osagai bilakatu behar da. Talde batzuentzako, behin Bizkaiko komunitateak dituen bisita eta aktibitate tradizionalak eginda, abentura aktibitate honek egun dibertigarri eta desberdin bat pasatzeko balioko du.
- Eskoletako taldeak, orain arte kurtso amaierako txangoak antolatzeko egon ez den aukera berri bat sortuko da. Eta ubideak eskaintzen dituen monitore zerbitzuak oso erakargarria bilakatuko du ubidea kurtso amaierako txangoen antolatzaileentzat.
- Unibertsitateko ikasleak, kirol instalakuntza desberdin baten eskaintza dela eta. Euskal Herriko unibertsitateak errendimendu altuko eskaintza sustatu dezake.
- Piraguismo arloko kirolean adituak diren kirol taldeak, beste ubideekin konparatuz duen kokapen eta konexioengatik.
- Segurtasun eta babes zibileko taldeak, ur lasterretan maniobra arriskutsuak segurtasun osoz entrenatuz.

## **2.2. Zergatia**

Euskal Herrian kirol honetan aritzeko dagoen zailtasuna eta bisitatutako beste ur lasterreko ubidetan ikusitako zailtasuna dela eta, proiektu hau burutzea erabaki da.

### 3. KOKAGUNEA

#### 3.1. Sarrera

Puntu honen helburua obra zehaztasunez non kokatuko den adieraztea da.

Balmaseda Bizkaiko hego-mendebaldean dago, Kadagua ibaiaren ertzetan. Hauexek dira bere mugak: Iparraldean Artzentales Harana eta Sopuerta Kontzejua, Hegoaldean Mena Harana, Ekialdean Zalla kontzejua eta Mendebaldean, berriz, Mena eta Artzentales Harana.

Balmasedatik Kadagua ibaia igarotzen da, Bizkaiko mendebaldeko eta Burgosko probintziako ipar-ekialdeko ibai bat da. Magdalena mendilerroan sortzen da, Burgosko probintziako Mena Harana udalerrian, eta hortik Enkarterri eskualdean barrena dario. Balmaseda, Zalla, Gueñes eta Alonsotegi udalerriak zeharkatu ondoren, Ibaizabalen amaitzen da, Burtzeña (Barakaldo) eta Zorrotza (Bilbo) auzoen artean. Kadagua ibaia berez Barakaldo eta Bilboko udalerrien arteko muga delarik. Ibaiaren azkenengo zatiak, itsasoaren eragina jaso eta Ezker Ibai izena hartzen du, Zorrotzetik Kastrexanaraino.




2.Irudia. Kadagua ibaiko arroa

### 3.2. Kokapen planoak


Bizkaia Espainiako iparraldean kokatuta dagoen erkidegoa da (ikusi 3.irudia). Balmasedako hiribildua Bizkaiko hego mendebaldean dago (4. Irudia), Gaztela-Leoneko erkidegoaren mugan. Bilbotik 30 kilometrora (5. irudia).



3.Irudia. Bizkaiko kokapena Espainian



4.Irudia. Balmasedako kokapena Bizkain



5.Irudia. Balmaseda eta inguru hurbila

Proiektu hau burutzeko, Balmasedako hiribilduaren barruan hiru kokapen aztertu dira eta jarraian azaldutako irizpideen arabera aukeraketa egingo da:



6.irudia. Aukera kokapenak

### 3.3. Aukerak eta irizpideak

#### 3.3.1. A aukera:

*El Peñueco* auzoa, Enkartadako Txapel Fabrika Kultur Ingurunean



6.1.Irudia. Enkartada Txapel Fabrikako ingurunea

### Abantailak


- Enkartada txapel fabrikak bere ekoizpenerako erabiltzen zuen ubide bat bertan eraikita egotea eta proiektuaren garapenerako erabilgarria dena.
- Enkartada museoa erabiltzen duen parking-aren erabilpena.
- Enkartada txapel fabrikaren inguruan aurretik eraikitako jolas-gunea

### Desabantailak

- Bertara heltzea garraibide publikoak erabiliz ezinezkoa da, heltzeko modu bakarra kotxea eta bidegorria izanik.
- Enkartada txapel fabrikako museoa bisita ugari izan ezker, aparkalekua ez litzateke nahikoa izango.
- Eraikita dagoen ubidearen erabilpena partekatzea.
- Ingurune menditsua izateagatik, lur mugimendu handiak burutzeko erabili behar den makineriaren kostua altua.

### 3.3.2. B aukera:

Magdalena etorbidea, 28. Fabio Murga industrialdean.



7.Irudia. Fabio Murga Industrialdea



### Abantailak


- Garraiobide publikoak erabilita gerturatzeko erraztasun handia.
- Bertan dagoen aparkalekuaren gaitasuna handitzeko aukera.
- Industrialdearen ondoan dagoen 4m-tako ur-jauzia proiekturako erabiltzearen aukera
- Herrian bertan kokatuta egotea eta honen ondorioz herriak jasango duen hazkuntza.
- Herriko gazteek beste kirol batean trebatzeak ....

### Desabantailak

- Fabio Murga-k bere ekoizpenerako erabilitako instalazioen berrerabilpena .
- Proiekturako behar den 6 m-tako desnibela lortzeko zailtasuna
- Bere ekoizpenean isuritako kutsaduraren tratamendua.
- Ura behar dugun altueraraino igotzeko behar den energia.
- Espekulazio handiko gunea.

### **3.3.3. C aukera:**

La Mella auzobidea, Urrutia Jauregia eta San Antonio Baselizaren inguruan.



8.Irudia. La Mella auzoa

### Abantailak

- Beste aktibitate kulturelekin lotzeko aukera.
- Jauregiaren ondoan dagoen zentral hidroelektriko zaharra berrerabiltzea.
- Ingurune natural batean aire zabalean kirol zein kultur aktibitateak lotzeko aukera

### Desabantailak

- Bertara heltzeko zailtasun handia, garraiobide publikorik ezta kotxeentzako errepiderik ez dagoelako.
- Proiekturako behar diren desnibeletako 6m-ak lortzeko lur mugimendu handiak behar izatea.
- Ura 6m igotzeko behar diren bonbak mugiarazteko energia kantitate handiaren beharra.
- Ingurumen inpaktu handia.

### Irizpideak

Aurreko atalean izendatutako aukeren artean egokiena zein den erabakitzeko hurrengo irizpideak jarraituko dira.

- 1.- Heltzeko erraztasuna. Garraiobide publikoak eta kotxeak erabilia.
- 2.- Ingurumen inpaktu txikia.
- 3.- Ura behar den punturaino igotzea erraza eta merke izatea.
- 4.- Posible den neurrian, ahalik eta merkeen izatea.

### Irizpideen azterketa

Irizpide hauek banaka aztertuko dira aukerarik egokiena hautatzeko:

- 1.- Herrian bertan kokatutako dago. Trenaren bidezko garraioa erabilia bertara heltzea posiblea da. Herriaren zentrotik gertu dagoenez, ubidearen aparkalekuaz aparte, herriko aparkalekuetan kotxea usteko posibilitatea. **B aukera**
- 2.-Gaur egon, kokapen honetan Fabio Murga kokatuta dago, bera industrial gune bat kenduko da, eta gune berdeak dituen gune berri bat eraikiko denez. **B aukera**
- 3.- Aukera guztiak zailtasun berdinak aurkezten dituzte.
4. Dirudienez, aurrekontuak egin gabe, pentsa daiteke, A eta C aukerak leku menditsuetan egoteagatik, garestienak izan daitekeela. **B aukera**

**Behin aukera guztiak aztertuta, eta aukera bakoitzak proiektua bertan aurrera eramateko jartzen dituen zailtasuna aztertuta, ondorioztatzen da B AUKERA (Fabio Murga Industrialdea (ikusi 7.irudia)) ur lasterreko ubidearen eraikuntzarako kokapen egokiena dela.**

#### 4. ORUBEAREN DESKRIBAPENA

Aukeratutako orubea forma irregularreko da eta malda oso txikia du. Orubearen azalera totala 1480m<sup>2</sup>-koa da eta Kadagua ibaiko eskuinaldean kokatuta dago. Jarraian (ikus 9.Irudia) orubearen katastroko datuak azaltzen dira. Bizkaiko Foru Aldundiko web gunetik atera direnak.

Orubeak zerbitzu guztiak ditu, hala nola, edateko ura, energia elektrikoa, kotxeentzako sarrera, hondakin uren saneamendu sarea eta telefonoa. Izendatutako zerbitzuen hartuneak, orubearen ondoan dagoen "La Magdalena etorbidean" aurkitu daitezkeen arketetan kokatuta daude.



### Katastroko Datuen Kontsulta Deskriptibo eta Grafikoa Ondasun higiezinak Consulta Descriptiva y Gráfica de Datos Catastrales Bienes Inmuebles

Zenbaki Finkoa/ Número Fijo <b>N9870794F</b>	Likarturiko Elem/ Elem. Asociados 3	Udalerria/ Municipio (090) BALMASEDA	Lursailaren Kokalekua/ Localización en Parcelario 090 007 04 003 001 UPB1D
Kalea edo atzea/ Via Pública o Paraje <b>(00079) PS LA MAGDALENA</b>		Erregio/ E. Bloke/ E28	Nº Foru/ Alan zsk./ E28
Erakurpena/ Escalera/ (U) UNICA	Solaria/ Planta (PB) BAJA	Aidea/ Mano 1D	Ara/ Pizta
Lursailaren Azalera/ Superficie Parcela	Elem. Azalera Egoztia/ Superficie Imputada Elem. 829,19 m <sup>2</sup>	Izaera/ Naturaleza URBANA	Partaidetza Kf/ Cf.Participación
		Erakuntza Erabilera/ Uso Constructivo INDUSTRIAL	
		Erakuntza - Birgokuntza Urtea/ Año Construcción - Rehabilitación 1982	

Katastro-Partzelaren UTM-koordinatuak / Coordenadas UTM de la parcela catastral

Eskala/ Escala = 1:600

#### ZENBAKI FINKO ELKARTUEN ERLAZIOA / RELACIÓN DE NÚMEROS FIJOS ASOCIADOS


Zenbaki Finkoa/ Número Fijo	Kalea edo Aidea/ Via Pública o Paraje	Elem. Azalera Egoztia/ Sup.Imputada Elem.	Erakuntza Erabilera/ Uso Constructivo	Part.Koef/ Coef.Partic.
U4212664R	00079 PS LA MAGDALENA	1.438,98 m <sup>2</sup>	INDUSTRIAL	100,00 %
N9870800S	00079 PS LA MAGDALENA	20,95 m <sup>2</sup>	OFICINAS	
N9870796V	00079 PS LA MAGDALENA	20,94 m <sup>2</sup>	OFICINAS	

9.Irudia. Orubearen katastroaren datuak


#### 4.1. Hidrografia

Kadagua ibaiak ingurua mozten du, haran estua osatuz, Sortaldetik Enkarterrien komunikabide naturala izango dena. Balmasedan zehar, ezkerraldeko aldapetan behera datozen errekaak (Tueros, koltza, Acebo) jasotzen ditu, eskumaldek, berriz, Angosturaren urak jasotzen ditu. Jarrain agertzen den irudia, proiektu honetarako aukeratutako kokapenean uholdea gertatzeko arriskua adierazten du.

Proiekturako uholdeek ez dute inolako eraginik. Hala ere, proiektu honen bitartez Kadagua ibaiko ibilguak ur asko duenean, uholdea gertatzeko arriskua duen gunean ubidea eta urarentzako bi biltegi handi proiektatu direnez, uholdeak saihesten laguntzea aurreikusi da



10. Irudia Kadagua ibaia Balmasedatik pasatzerakoan duen uholde arriskua ebaluatzea



## 5. DISEINUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

### 5.1. DISEINURAKO IRIZPIDEAK

- Ubidetik arazorik gabe kirolean jarduteko beharrezkoa den sakontasun minimoa 0,4 metrotakoa izango da.
- Ur lasterreko ubidearen zehar oztopo mugikorrek jartzeko aukera desberdinak egongo dira. Kasu honetan hiru oztopo mota desberdinen bitartez lortuko dira beharrezko irregulartasunak.
- Emaria erregulagarria izango da, lehiaketetarako baimendutako emari maximoa 12 m<sup>3</sup>/s-koa izanik. Bestalde proiekturako diseinatuko den emari minimoa 6m<sup>3</sup>/s-koa da.
- Ur lasterreko ubidearen zehar malda aldaketan egongo dira. Gomendaturiko malda maximoa %2,5-ekoa izanik, minimoa aldiz %0,5-ekoa.
- Ponpaketa zentral batez hornitutako ur zirkuitu itxia duen ur lasterreko ubidearen instalakuntza.
- Ubidearen hondoa arinki armatuta hormigoikoa izango da, gainazal leun eta irregulartasunik gabekoa. Egurrezko tabloiak eta perfil metalikoak erabiliko dira oztopo mugikorrek sortzeko. Bestalde, arroka borobilduak ere erabiliko dira ubidean zehar oztopo naturalak sortzeko helburuarekin.
- Bai ubidearen baita biltegien ezpondek, ibaiko arroka borobilduak osatuko dituzte azkenengo hauen arteko hutsuneak morteroarekin betez. Gainazal irregular honek, larrialdi irteera lanak burutuko ditu, ubidean dagoen ontziren bat irauli eta gero. Azkenik ezpondaren gaina, soropilez osatuta egongo da.
- Ubidearen bi aldeetan ateen posteak lotzeko sistema homogeen eta funtzio aniztuna.
- Ubidera kirola praktikatzeko eta piraguismo lehiaketak ikustera hurbilduko diren pertsonentzako aparkalekua eraikiko da.
- Ubidearen erabiltzaileak kirol aktibitatea bukatu eta gero, dutxa hartzeko bi aldagelen eraikuntza. Baita ere, kirol jarduera praktikatu eta gero, indarra berreskuratzeko kafetegia eta kirola praktikatzeko beharrezkoa den materiala alokatzeko eraikina.
- Urperatutako moto-ponpaz sortutako ponpaketa zentrala. Zentralaren eraginkortasuna soinu eta ikus inpaktu txikiarekin batera diseinatu eta kokatuko da.
- Goiko eta beheko ur biltegiek erremonete mekaniko (zinta garraiatzaile) baten bidez egongo dira konektaturik. Zinta honek, beheko biltegitik goiko biltegitira ubidetik

atera gabe ontziak eta erabiltzaileak igotzea baimentzen du. Rafting-eko ontziak sartzeko bezain handia izango da.

- Ubidearen inguruan aktibitatea praktikatzen ez duten pertsonentzat baino ikusle moduan helduko direnak era egokian egotea baimenduko duten gunek berdeak. Aldi berean, umeentzako gunek bat jarriko da.

- Zerbitzu eta oinezkoentzako mugimenduak errazten duen bideak, irisgarritasuna bermatuko dutenak. Instalakuntzaren itxitura sortuko da, perimetro osoan zehar hesi bat eraikiz.

- Ubidean piraguismoa praktikatu eta gero, beste kirol mota bat praktikatu nahi dutenentzat eskalada praktikatzeko aukera egongo da, aldagelak eta kafetegiaren inguruan rokodromo bat instalatuz.

## 5.2. LEHIAKETETARAKO EGOKITZAPENA

Lehiaketa nagusiak, hala nola, munduko edo Europako txapelketak, noizean behin baino ez dira ospatzen, urtean behin edo bi urtetan behin hain zuzen. Hau dela eta, lehiaketa hauetarako ubideak edo parkeak orokorrean beharko dituen baliabideak uneoro instalatuta egoteak ez luke zentzu handirik izango.

Aurretik aipatutako lehiaketen programazioa, urte bateko edo bi urteko aurrerapenarekin jakinarazten da non eta noiz antolatuko den. Beraz, aipatutako denbora tartea nahikoa da diseinatutako instalakuntza lehiaketa hauek behar dituzten baliabideaz zuzkitzeko.

Kanoetako Nazioarteko Federazioak antolatzen dituen txapelketan, salbuespenezko kasuak aparte, astebeteko iraupena daukate, baina bere antolakuntza eta instalakuntzen prestaketa hilabete oso bat beharko dute.

Proiektu honek, gunek eta instalakuntza desberdinen antolaketa eta banaketa kontutan hartu ditu lehiaketarako beharrezkoak izango diren aldaketak ahalik eta erraztenak eta ekonomikoak izan daitezzen.

Orubeak lehiaketa handietarako ezarri beharko diren baldintzak era egokian banatzeko sektoreka banatuko da.

Lehiaketa handietarako jarri edo berrantolatu beharko diren instalakuntzak jarraian agertzen direnak izanik:

- Epaile eta kirolarientzako guenak.
- Kirolarientzako guenak
- Jende ospetsua, babesle eta federazioko partaideentzako gunea.
- Telebista eta prentsarentzako gunea.
- Teknologia eta antolakuntza.
- Kirol jarduerako ikusleak.
- Informazioa, sarrerak eta aparkalekuak.

## 6. UR ZIRKUITUA

Puntu honetan urak ubidearen instalakuntzaren zehar jarraituko duen ibilbidea zehaztuko da, Kadagua ibaiko emariaren zati bat desbideratzen denetik berriro ere ibaira hartutako ur hori itzultzen den arte, tarteko fase guztiak azalduz:

- Kadagua ibaiaren emari zehatz baten desbiderapena. Desbiderapen ubidea erabiliz burutuko da, eta desbideratutako emaria kontrolatzeko “tajadera” motako konporta erabiliko da, desbiderapen ubidearen hasieran kokatuta egongo dena.
- Desbiderapen ubidea: zati honetatik ibaitik hartutako eta geroago ur-lasterreko ubidetik zirkulatuko duen emaria zirkulatu du. Ubide honetatik zirkulatuko duen emaria, 1 metroko ur tiranteari eta 0,5% maldari dagokiona da.
- Goiko ur biltegia: hartutako ura desbiderapen ubideko tartea bukatzen duenean, goiko ur biltegia helduko da. Bertan bilduta egongo da, erabiltzaileek ur hori kirol jarduera egiteko behar duten arte. Konporta batez, ura ur-lasterreko ubidera pasako da. Konporta horren bitartez, kirolarien trebetasunaren arabera botako den emaria kontrolatu daiteke.
- Ur lasterreko ubidea: erabiltzaileek horrela behar dutenean, konporta irekiko da eta ura ur-lasterreko ubidetik pasako da. Aditu baten ustez bertan jarritako oztopoetatik igaroz beheko ur biltegia heldu arte.
- Beheko ur biltegia: Behin oztopo guztiak eta ur-lasterreko ubidearen luzera osoa zeharkatu ondoren, ura beheko ur biltegia helduko da. Behe biltegi honetan, urak bi aukera desberdin izango ditu urtaroaren arabera. Urtaro euritsuetan adibidez, ur asko dagoenean beheko biltegia helduko den ura zuzenean hustuketa ubidetik Kadagua ibaira itzuliko da. Hain euritsuak ez diren urtaroetan aldiz, ura beheko ur biltegian instalatuko den ponpaketa zentral baten bidez, goiko ur biltegia bueltako da. Hala ere, bitarteko kasuak ere gerta daitezke, eta ubideak egoera horietarako ere prestatuta egongo da.

## 7. UBIDEAREN OSAGAIEN DESKRIBAPENA

### 7.1. Desbiderapen ubidea

Kadagua ibaiko ibilgua ubidera desbideratzeko, desbiderapen ubidea diseinatu beharko da. Era honetan, kirol aktibitateak era egokian aurrera eramateko beharrezkoa den ur kopurua ur-lasterreko ubidera helduko da.

Desbiderapen ubidea 2x1,5 metrotako sekzio karratua izango du. Arinki armatutako aurrefabrikatutako hormigoiaz izango da. Segurtasunez ubide honen sakontasun maximoa 1,00 metrotakoa izango da, gehiegizko emaria 18,7m<sup>3</sup>/s-koa izanik.

Jendea eta animaliak bertara ez erortzeko helburuarekin hesi perimetrala kokatuko da bere luzera osoan zehar.



10.Irudia. Hormigoizko desbiderapen ubidea

### 7.2. “Tajadera” motako konporta

Kadagua ibaiko ibilgutik desbideratzen den emaria kontrolatzeko asmoz, 10.1.puntuan deskribaturiko desbiderapen ubidearen hasierako tartean “Tajadera” motako konporta jarriko da.

Bere diseinuari esker konporta honek airezko kanalizazioetan lan egiteko egokia da, ixtea hiru aldeetan dituelako (zelata eta aldeetan). Jariakin garbi zein suspentsioan solidoak dituzten jariakinen lan egiteko aproposa da.

Aukeratuta tamaina 2x1,5 metro da. Konporta mota hau ixtea hiru aldeetan duenez, baimendutako lanerako presio maximoa konportaren altuera bera da. Uraren sakontasuna konportaren altuera baino handiagoa izatekotan, ura konportaren gainetik isuriko da.



Ubidearen hasierako partean tarte bat utziko da konporta erraztasun muntatzeko, eta ubidearen hormigoizko sekzioarekin zurrunki lotzeko.

Konportaren estankotasuna DIN 19569 “clase de fuga 5” araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen ditu.

Konporta jarrian azaltzen diren osagaiek osatuko dute:

### **Gorputza edo bastidorea**

Gorputza edo bastidorea soldatutako mekano batez osatuta dago, pieza bakar batetan fabrikatuta. Zurruntasuna handitzeko eta deformazioak saihesteko helburuarekin tolestutako perfilez egingo da. Aldeetako perfilak, tajadera” bertatik irristatzeko hutsune bat izango dute bere luzera osoan zehar, toleste batzuen bidez lortuko direnak (soldadurarik gabe) ihesak sortuko ez direla bermatuz.

Gorputzaren altuera gutxienez “tajadera”-ren altueraren bikoitza izango da. Konporta guztiz irekita aurkitzen denean “tajadera” bertan gelditzeko.

Konportaren bastidorea, desbiderapen ubidean hutsi de hutsunean hormigoiarekin muntatzeko diseinatu da, hau dela eta, ez da inolako torlojurik erabili behar bastidore ubidera lotzeko.

Bastidorea osatzeko erabilitako materiala altzairu herdoilgaitza AISI304 da.

### **Tajadera**

“Tajadera” sortzeko erabiliko den materiala, konportaren bastidorea osatzeko erabiliko den material bera izango da.

“Tajadera”-k beharrezkoa duen zurruntasuna bermatzeko asmoz zurruntzaile batzuk soldatuko dira. Osagai honen goiko partean bastago bat kokatuta dago, zeinak bere mugimendu longitudinalaren bidez konporta ireki eta itxiko duen. Itxitura junturak atal honen beheko partean eta bi aldeetan kokatuta egongo dira.

### **Asentua**


Konportaren ohiko ixtea gomazko janta batzuen bidez egingo da. Hauek “tajadera”-ri altzairu herdoilgaitzez egindako brida batzuen bidez lotuko dira. Aurreko ataletan azaldu den bezala, estankotasun baldintzak betetzen ditu, DIN19659 “clase 5 de fuga” araudiaren arabera.

Asentu mota noranzko bakarrekoa da, jariakina beti alde beretik joango delako. Itxitura junturak “tajadera”-ren ur gora kokatuko dira. Horrela urak junta bastidorearen kontra bultzatuko du, estankotasuna bermatuz. Estankotasun juntaren materiala EPDM izango da, 90°C baino tenperatuta txikiagoetan erabilia eta %100 estankotasuna bermatzen duena.

## Eragingailua

Konportaren goiko partean, langa bat dago. Langa honetan eragingailua kokatuta egongo da. Konportaren altuera minimoa izatea behar denean, langa honek, "tajadera"-ren mugimendu longitudinala mugatuko du posizio egokian mantenduz. Eragingailua martxan jartzean, honek bastagoan sortzen duen indarra "tajadera"-ri transmitituko dio eta honek goranzko zein beherako mugimenduak egingo ditu.

Eragingailu elektrikoa eta automatikoa izango da.



11.Irudia. "Tajadera" motako konporta

### 7.3. GOIKO UR BILTEGIA

Biltegi hau desbiderapen ubidearen amaieran eta ur-lasterreko ubidea hasi baino lehen kokatuta dago. Bertan kirol jardueran arituko diren ontziak egongo dira, beraien txanda heldu arte.

Bertara heltzeko bi modu desberdin daude. Bata, beheko eta goiko biltegiak lotzen dituen zinta garraiatzailea erabiliz, baina hau bakarrik erabili ahal izango da behin ur-lasterreko ubidetik pasa denean. Bestea, piragua eskuan izanda oinezkoentzako dagoen bidea eta gune berdeak zeharkatuz. Uretan lehengo aldiz sartuko den edonork goiko ur biltegiara heltzeko azaldutako azkeneko modu hau erabili beharko du.

Ur horniketa desbiderapen ubidetik grabitatez izango da. Betetze denbora aldakorra izango da, egindako mantentze lanen arabera, eta instalakuntza itxita egongo da goiko ur biltegia betetzen den bitartean.

Biltegi hau sortzeko beharrezko lur mugimenduak, hondeaketakoak izango dira. Biltegia beharren arabera forma irregularra du eta ezpondek 1:1 -eko malda izango dute. Biltegiaren sakotasuna konstantea izango da eta 2 metroko balioa du. Baina segurtasunez ur maila beti egongo da 1 eta 1,5 metro bitartean. Bertan daitekeen ur bolumen totala 11.000m<sup>3</sup> izanik.

Eraikitze duen erraztasuna eta epe laburrera sortuko dituen abantaila ekonomikoak aztertuta, biltegi mota hau eraikitzea erabaki da. Egin beharreko lana hauek dira:

- Oinarrizko lanak: hondeaketa, trinkotzea eta iragazgaiztea.
- Ez ditu ikasketa sakonik ezta aparteko baimenik behar.
- Desbiderapen ubidetik oso gertu dagoenez, ura bertara eramateko ez dira inolako tuturik ezta instalaziorik behar.

Biltegi mota honetan arazo nagusiak ihesaldiak eta hauek sortu ditzaketen ondorio larriak dira. Hau ez gertatzeko, segurtasun neurri bezala gomendagarria da biltegi hauetan drainatze sistemak diseinatzea. Hurrengo ataletan, eraikitze era egokian aurrera eramateko jarraitu beharreko pausuak era zehatz batetan adieraziko dira:

Jarrain goiko ur biltegia eraikitze jarraitu beharreko prozedura azaltzen da:

## Biltegiaren eraikuntza

- a) **Orubearen prestaketa eta aurretiko lanak.** Gaur egun orubean bertan dagoen fabrika eraispina, mota honetako proiektuetan eta lanetan aditua den enpresa batek burutuko ditu lan guztiak. Behin lan hauek bukatu eta gero, ur-lasterreko ubidea eraikitzeko beharrezkoak diren lanak hasiko dira. Hasteko, orubean dagoen asfaltoko sekzioa kenduko da, lur naturalera heldu arte. Jarraitzeko, orubean dagoen lurraren azterketa zehatza burutuko da, segurtasun osoz jakiteko zein lur-zoru mota aurkituko den lanak burutzeko momentuan.



*12.Irudia. Eraiste lanak*

- b) **Lur mugimenduak.** Atal honen barnean, biltegia eraikitzeko beharrezkoak diren lur mugimendu guztiak, hondeketa, lubetak sortzea eta trinkotzea kontutan hartzen dira. Komenigarria izaten da, probetarako gune bat izatea obran bertan. Trinkotzeko lurrak duen gaitasuna aztertzeko, baita lurraren dentsitate lehorra eta ur kantitate egokiak lortzeko behar diren pasaera kopurua zehazteko asmoz. Trinkotzea 0,5 eta 1 metrotako lodiera duten tongadetan burutu ohi da erabilitako makineriaren arabera zehaztuko dena. Proiektu honetan, 0,5 metrotako lodiera duten tongadetan burutuko da trinkotzea, 20 tonako arrabol bibratzailea erabiliz eta %90-95 trinkotzea lortuz.



*13.Irudia. Biltegie lurren trinkotzea*

- c) **Geotextila.** Behin lur mugimendu guztiak bukatu direnean, lurraren amaierako gainazala ahalik eta leunen utziko da, honen gainean lamina iragazgaitza babestuko duen lamina geotextila kokatuko baita. Aukeratutako lamina geotextila propilenoakoa da eta 105kN/m-ko erresistentzia edukiko du. Geotextil hau, mota honetako lanetan adituak eta esperientzia handia duten langileak edo azpikontratako langileen esku utziko da.




14.Irudia. Biltegiaren geotextila

- d) **Iragazgaitzea.** Iragazgaitzerako erabiliko den lamina sendotutako PVC-koa (policloruro de vinilo plastificado) izango da. 2,05 metrotako zabalera, 150 metrotako luzera eta 1,2 metrotako lodierako neurriak izango duten biribilkietan hornituta. Biribilkien neurri handia aukeratu da obran jartzeko zailtasuna handituko dela jakinda, baina soldadura gutxiago beharko direnez, zoru bat iragazgaitzeko hobeagoa dela erabaki da. Laminen arteko soldadura aire beroa erabiliz egingo da eta laminen arteko gainjartzea gutxienez 15 zentimetrotakoa izango da. Biltegiaren lubetaren goiko partean, zanga txiki bat egingo da, bertan lamina lurperatutako altzairuzko barra uzurtuen bidez eusteko. Aipatutako zanga, 0,5 metrotako zabalera eta 0,5 metrotako sakonera izango ditu. Behin lanak bukatu direnean, zanga trinkotuko den lurrez beteko da.




15.Irudia. Biltegiaren iragazgaitzea



16.Irudia. Biltegiaren koroapenaren detailea

## Biltegien drainatze sistema

Biltegien hondoan jarriko den drainatze sistema “arrain arantza” antolamendua jarraituko du, legarrez bildutako tutu drainatzaileekin bateriko zangen bidez.




17. Irudia. “Arrain Arantza” motako drainatzea

Drainatze Sistema honek behar dituen lanak:

- 0,5x0,5 metrotako zangen hondeaketa.
- Legarreakin betetzea.
- Zirrikituak dituen tutu drainatzaileak.
- Lamina geotextila eta inpermeabilizazioa
- Zanga trinkoturiko lurrez betetzea

Drainatzerako erabiliko den pareta bikoitzeko zirrikituak dituen tutua 160 mm-ko diametrokoa da eta %1 maldarekin kokatuko da, 19,13 l/s ko emaria maximoa baimenduz. Drainatzean bilduko de ur guztia, urperatuta dagoen arketa batera bideratuko da. Azkenik ura Kadagua ibaiko ibilgura botako da.



18. Irudia. Drainatze sistema

## 7.4. UR LASTERREKO UBIDEA

Ur lasterreko ubidearen sekzioa forma trapezoidalekoa da. Ezpondek duten malda 1:1 balioko du eta ubidearen zolatak 8 metrotako zabalerakoa da. Ubidearen sekzioa arinki armatutako hormigoikoa izango da. Goiko partean ibaiko arroka biribilduak jarriko dira, sortutako hutsuneak morteroarekin betez. Ubidea eraikitzeko jarraitu beharreko prozedura, biltegiak sortzeko erabili beharko denaren antzerakoa da. Jarraian ubideak sortzeko jarraitu beharreko pausuak adierazten dira (pausu berriak baino ez dira azalduko, besteak (ikusi 24.0rr. Biltegiaren eraikuntza atala):

### Ur lasterreko ubidearen eraikuntza

- a) **Orubearen prestaketa eta aurretiko lanak.**
- b) **Lur mugimenduak.**
- c) **Geotextila.**
- d) **Iragazgaiztea.**
- e) **Hormigonatzea.** Behin ubidearen gainazala iragazgaiztuta, honen gainean zuzenean ubidearen hormigonaketa burutuko da. Aukeratutako hormigoia HA-25 da eta altzairua B500S. Jarraitu beharreko lehenengo pausua, sekzioaren armatzea da 20x20x5 zentimetrotako altzairuzko sarea erabiliz. Pausu hau bukatuta sekzioaren hormigonatuko da.
- f) **Sekzioaren bukaerako gainazala.** Azkenik, ubidearen sekzioaren aldeetako gainazalak morteroarekin lotutako ibaiko arroka biribilduekin errematatuko da.

### Ubidearen drainatze sistema

Ubidearen drainatze sistema, sekzioaren erdiko partean zanga baten bitartez burutuko da. Zanga honen barnean, legarrez inguraturiko pareta bikoitzeko zirrikituak dituen tutu drainatzailea jarriko da (ikusi 18.Irudia). Tutu honen diametroa, biltegien drainatze sisteman bezala, 160mm- takoa izango da eta PVC-z izango da. Ubidearen maldarekiko paralelo jarriko da. Drainatze sistema honekin bilduko den ur guztia, Kadagua ibaiko ibilgura zuzenean botako da.

Drainatze Sistema honek behar dituen lanak:

- 0,5x0,5 metrotako zangen hondeaketa.
- Legarrarekin betetzea.
- Zirrikituak dituen tutu drainatzaileak.
- Lamina geotextila eta iragazgaiztea
- Zanga trinkoturiko lurrez betetzea

“Kalkulu hidraulikoak” izeneko eranskinean adierazten den bezala, emaria erregulagarria izango da. Ubidea pertsona guztientzat erabilgarria izateko eta kirol hau gazteen artean sustatzeko helburuarekin hiru emari desberdinen artean erregulagarria izateko dimentsionatu da. Emari minimoa  $6\text{m}^3/\text{s}$ -koa, piraguismoan lehenengo urratsak ematen eta ikasten ariko diren pertsonentzat izango da. Tarteko emaria  $9\text{m}^3/\text{s}$  balioa duena, behin baino gehiagotan kirol honetan jardun diren pertsonentzat edo lehenengo aldiz jardungo dutenak baina monitore batekin jaitsiko direnentzat. Azkenik  $12\text{m}^3/\text{s}$ -ko emaria txapelketa egunetarako baino ez da dimentsionatu.

Ubidearen luzeran zehar, “Kalkulu hidraulikoak” izeneko eranskinean adierazten den bezala, hiru oztopo mota desberdin erabiliko dira. Oztopoak kirol honetan ezinbestekoak diren ur lasterrak eta ur geldoak sortzeko erabiltzen dira. Eranskinean kalkuluak agertzen dira, baina behin obra bukatuta dagoenean aditu batek ubidean zehar oztopoak banatuko ditu, berak nahi dituen ur irregulartasunak sortzeko.

Oztopoen altuerak eta formak, ubidearen luzera osoan zehar kirol jarduera era egokian praktikatzeko beharrezkoa den  $0,4$  metrotako ur tirante minimoa ziurtatzeko dimentsionatu dira.

Diseinatutako ur lasterreko ubidea lau tarte desberdinetan banatu da. Lehenengo tarte,  $144,95$  metrotako kota duena, %1-eko malda du eta bere luzera totala  $47$  metrokoa da. Bigarren tarte %2-ko malda duena  $100$  metrotako luzera du eta  $144,47$  metrotako kotan hasten da. Hirugarren tarte %2,5-ko malda duena  $84$  metrokoa da eta tarte honek  $142,00$  metrotako kota du. Azkenik diseinatu den tarterik leunena  $46,8$  metrotako luzera eta %0,5-eko malda izango du eta  $140,33$  metrotako kotan hasten da, bere amaierako kota  $140,09$  metrotakoa izanik. Honen arabera, ubidea  $277,8$  metrotako luzera totala du eta %1,8 batez besteko malda, gainditu beharreko kota diferentzia  $4,8$  metrotakoa izanik.

Azaldutako parametro guztiak kontutan izanda, “Kalkulu hidraulikoak” izeneko eranskinean urak ubidean zehar sortuko dituen irregulartasunen kalkuluak eta azalpenak agertzen dira.

## 7.5. BEHEKO UR BILTEGIA

Ubidearen ibilbidearen amaierako partean aurkitzen da eta lehiaketetarako helmugarekin bat egiten du.

Biltegi hau, ubidetik grabitatez jaitsiko den urarekin beteko da.

Beheko biltegiaren eraikitze prozedura, goiko ur biltegia eraikitzeke jarraitu beharreko prozedura bezalako da (ikus. 24.orrialdea).

Biltegi hau sortzeko beharrezko lur mugimenduak, hondeaketakoak izango dira. Biltegia beharren arabera forma irregularra du eta ezpondek 1:1 -eko malda izango dute. Biltegiaren sakotasuna konstantea izango da eta  $1$  metroko balioa du. Bertan sartu daitekeen ur bolumen totala  $3.000\text{m}^3$  izanik.

Biltegiaren alde batean, “tajadera” motako konporta bat jarriko da, hustuketa ubiderekiko kontaktuan. Noizean behin, ubidearen ura berritzeko edota ubidean mantentze lanak egiteko biltegi osoa hustu behar denerako. Biltegiaren beste alde batean, bi biltegien arteko distantzia



oinez egitea saihestuko duen erremonte mekanikoa edo beste era batera esanda zinta garraiatzailea kokatuta dago.

## 7.6. HUSTUKETA UBIDEA

Ubidean egin beharreko aldizkako mantentze lanak ikusita eta ur berdina une oro ubidetik zirkulatzea egokia ez dela ikusita, hustuketa bide bat diseinatzea aurreikusi da. Horretarako, 500 milimetrotako hormigoizko tutu lurperatuak erabiliko dira. Tutu hauek %1,5-eko maldarekin kokatuko dira. Guztira hustuketa ubide honen luzera 10 metrokoa da.

Tutua instalatzeko, 60x60 zentimetrotako zanga bat irekiko da. Zangaren beheko partean trinkotutako legarrez osatutako kapa txiki bat botako da, tutak bertan jartzeko. Azkenik tutuak guztiz lurrez beteko dira lurzoruaren maila berdina lortu arte.

Beheko biltegiko ura grabitatez aterako da tututik, tutan biltegiaren beheko partean kokatuta egongo delako. Eta bertatik pasatzen den ura zuzenean Kadagua ibaiko ibilgura isuriko da.



19.Irudia. Hustuketa ubidea

## 7.7. PONPAKETA ZENTRALA

Ur lasterreko ubideak behar duen uraren horniketa ponpen bidezko zirkuitu itxi baten bidez burutuko da. Ubidean zehar zirkulatuko duen emaria maximoa  $12\text{m}^3/\text{s}$ -koa izango da eta ponpak salbatu behar duen altuera manometrikoa  $100\text{ m.z.u.}$ -ekoa izango da.

Instalatzeko erraztasuna, eraginkortasuna eta egin beharreko obra zibila ikasi eta gero, urperatutako ponpak jartzea erabaki da. Ponpa bere pisu propioarekin eutsita geratuko, euste zutabearen oinarriaren gainean, bertikalean kokatuta. Ponpa mota honek duen geometria erraza dela eta karga galerak murrizten ditu eta errendimendu optimoa lortzeko aukera ezin hobe bihurtzen du.

4 (3+1) ponpen instalakuntza aurreikusi da, diseinatutako emaria eta altuerak beharrak asetzeko nahikoa izango direnak. Ur lasterreko ubidean zehar botako den ur emari maximatorako diseinatu direnez, ponpa bakoitzaren gaitasuna  $3\text{m}^3/\text{s}$  izango da.

Ponpaketa sistema 4 ponpa berdinez osatuta egoteak, emariaren beharrak asetzeko hiru ponpekin nahikoa denean, mantenimendurako ponpen txandaketa ahalbidetzen du instalakuntzaren gaitasun maximoa murriztu gabe.

Beheko eta goiko biltegiak biltzen dituzten burdin urtuko bultzatze hodiekin,  $110\text{ metro}$ -tako luzera dute eta  $1.500\text{ mm}$ -tako diametrokoak dira. Hodi hauek zanga batean lurperatuta egongo dira eta hodi bakoitzaren amaieran itzulerak ekidingo dituzten balbulak instalatzea proiektatu da. Balbula hauek, segurtasun lanak ere egingo dute, objektuak edo muturreko kasuetan pertsonak sortzea ekidinez. Bestalde, xurgapen hodian tomaina handiko partikulak sartze ekidingo duen nabarra instalatuko da.

Aipatutako ponpen kalkuluak "Ponpen dimentsionamedua" izeneko eranskinean argitasunez adierazten dira.

Gainditu beharreko altuera manometriko eta beharrezko emariak aipatuta instalatuko den ponpa mota aipatuko da.

### **Zehaztapen Teknikoak**

Rurhpumpen PVT hondoratutako ponpa bertikala, partikula handi gabeko urentzat.

Emaria:  $3000\text{m}^3/\text{h}$  –  $18.00\text{m}^3/\text{h}$

Xurgatze eta etapa bakarrekoa,  $15\text{ metro}$ -ko sakonera maximatoraino urperatu daiteke eta  $40^\circ\text{C}$ -ko tenperatura maximoan. Baimendutako presio maximoa  $7\text{ bar}$ -ekoa da.

## 7.8. IGOGAILU MEKANIKOA

Igogailu mekanikoa, kautxu sintetikoak biribilkien gaineko zinta garraiatzaile batez osatuta dago. Sekzio trapezoidalekoa da 2,5 metrotako zabalarekin. Igogailuaren luzetarako perfila malda gorakorra izango du azkenengo tartera arte, non, malda beherakorrera aldatuko da, ontziek uretan erraztasunez sartzeko.

Era honetan, ur lasterreko erabiltzaileek behin eta berriro ur-lasterreko ubidea erabiltzeko aukera izango dute, beraien ontziak eskuetan eraman gabe eta uretatik irten gabe.

Ur azpiko mekanismo guztien funtzionamendu egokia bermatzeko behar den bezala babesturik egongo dira. Pertsonak garraiatzeko sistema denez, denon segurtasuna bermatu behar du eta larrialdiko etenaldia ere izan behar du.

Igogailuaren amaierako luzera total 110m-takoa da.



20.Irudia. Igogailu mekanikoa

## 7.9. ALDAGELAK

Kirolariek beraien jarduerak bukatu eta gero dutxatzeko aukera izan dezaten, proiektu honetan bi aldagela eraikiko dira. Biak berdinak izango dira, salbuespen bakarra bata emakumeak eta bestea gizonezkoak erabiltzeko eraikiko direla.

Aldagelen barneko tarteak hainbat gune desberdinetan banatuko dira. Sarrerako partean lau konketa, bankuak eta kirolariek beraien gauza pertsonalak gordetzeko armairuak kokatuko dira. Beste gune banetan komunak eta azkenik dutxak kokatuko dira.

Proiektatu diren eraikinak 10 metrotako laukizuzen formakoak izango dira, 100 metro karratuko azalera itxia sortuz. Eraikinen egitura metalikoa da.

### Egitura metalikoa

“Egituraren kalkuluak” izeneko eranskinean frogatu den bezala hauek dira eraikinak eraikitzeko beharko diren perfil metalikoak:

- UPN120 motako 5 metrotako 20 petral
- IPE200 motako 5,22 metrotako 6 habe
- HEB220 motako 4 metrotako 6 zutabe



21.Irudia. Egitura metalikoa


### Itxitura

Eraikinen paretak sortuko duten itxitura, orri bikoitzeko adreilukoak izango dira. Adreiluak beraien artean lotzeko morteroa erabiliko da eta behar izanez gero, arinki armatu daitezke. Amaierako gainazal leuna lortzeko bai kanpoko eta barruko aurpegietan, morterozko kapa fina aplikatuko da hormen gainazalen osoan zehar. Bestalde, eraikinen teilatuak teila zeramikoazkoak izango dira. Teilak beraien artean lotzeko “rosca-chapa” izeneko torlojuak erabiliko dira txapa galvanizatuko arrastrel metalikoen gainenean.

## Zimendura

Eraikinetako kargak eusten dituen zimenduak hormigoizko zapata isolatu karratuak dira. Zutabe bakoitzeko zapata bat eraikiko da.

Egitura metalikoak jasaten dituen kargak lurzorura transmititzeko zapata isolatu laukizuzenak erabiliko dira. Zapatak lurzoruarekin duen kontaktu azalera karratua izango da 3,5 metroko aldekoa. Bestalde, zapataren altuera 0,7 metroko balioa izango du. Zimendu honen dimentsioen kalkulua "Egituraren kalkuluak" izeneko eranskineko *Zimenduak* atalean argi eta garbi adierazten dira.



22.Irudia. Zapata isolatu karratua

## **7.10. UR HORNIKETAKO SAREAREN INSTALAKUNTZA**

### **7.10.1. UR HORNIKETARAKO SAREAREN DISEINURAKO OINARRIAK**

Ur horniketako instalakuntzak Eraikuntzako Kode Teknikoak eta zehatzago izanez, Osasuna eta Higienea dokumentu basikoan (CTE-DB-HS) ezartzen diren baldintzan arabera dimentsionatuko dira.

Instalakuntzen diseinua, UNE 10011, UNE 100-014-84, UNE 100-001-85, UNE 100-011-91 eta UNE 12464-1 arauak ezartzen dituzten baldintzak betetzeko ere dimentsionatuko dira. Izendatutako arau guzti hauek RITE ("Reglamento de Instalaciones Térmicas en Edificios") barnean agertzen dira.

### **7.10.2. UR HOTZEKO HORNIKETA SAREKO SISTEMA**

Ur hotzeko horniketa sistemak CTE DB-HS4 dokumentuan ezartzen diren baldintzak bete behar ditu, proiektu honen 222Eranskinean kalkulurako irizpideak eta jarraitutako pausu guztiak agertzen dira.

Proiektatu diren eraikinek beharko duten ur hitzeko emariak, Eraikuntzako Kode Teknikoaren arabera kalkulatu dira, eraikin mota hauei dagokien aldiberekotasun koefizienteak kontutan hartuz.

Erabiliko den horniketarako hoditeria UPONOR etxeakoak izango dira, polipropileno erretikulatuzko materialekoak hain zuzen.

Ura banatzeko hoditeria, barneko deribazioak eta kontsumo puntu bakoitzaren deribazioak dimentsionatuko dira.

Balmasedako udal sareak "La Magdalena 28" etorbideko helbidean hornitzen duen uraren presiotik abiatuz, urrunen dagoen kontsumo puntuan 10 m.z.u. -eko presio minimoa egongo dela bermatuko da inolako presio talderik erabili gabe.

Instalakuntza hauetan ur hartunetik kontsumo puntura jarri beharreko elementuak, hala nola, pasoko giltzak, kontagailuak eta presioa mugatzen duten balbulak ere hartu dira kontutan proiektu hau diseinatzerako orduan.

### **7.10.3. UR BEROKO HORNIKETA SAREKO SISTEMA**

Aurreko atalean aipatu den bezala, ur beroko horniketa sistemak CTE DB-HS4 dokumentuan ezartzen diren baldintzak bete behar ditu, proiektu honen 223Eranskinean kalkulurako irizpideak eta jarraitutako pausu guztiak agertzen dira.

Proiektatu diren eraikinek beharko duten ur hotzeko emariak, Eraikuntzako Kode Teknikoaren arabera kalkulatu dira, eraikin mota hauei dagokien aldiberekotasun koefizienteak kontutan hartuz.

Ur beroko (A.C.S) instalakuntzarako behar de ur emaria, ur hotzeko hornikuntza instalaziotik deribazio baten bitartez lortzen da.

Jarraian, desbideratutako ur kantitatea, ura berotuko duen berogailu elektriko batetik pasako da. Bi berogailu desberdin kokatuko dira, bata aldagelen ur beroko eskaera asetuko duena eta bestea kafetegiko ur beroko eskaera asetzeko. Aldagelen ur beroko eskaera handiagoa denez, berogailua ere handiagoa izango da eta bere tamaina dela eta, armairu metaliko batez estalita eraikinaren atzealdean instalatzea proiektatu da. Kafetegiko kasuan aldiz, eraikinean barruko partean instalatuko da, sukaldeko barneko gunean hain zuzen.

Berogailutik urrunen dagoen kontsumo punturaino distantzia 15 metro baino handiagoa denez, itzulera sarearen instalakuntza diseinatu beharko da. Horretarako banaketa emariaren %10 itzulera emari bezala erabiliko da.

Erabiliko den horniketarako hoditeria UPONOR etxeakoak izango dira, polipropileno erretikulatuzko materialezkoak hain zuzen. Ur beroa garraiatzen duen hodi guztiek, isolatuta egongo da, ura hodien zehar zirkulatzean bero galera ahalik eta txikiena izateko. Hodien isolamendua ARMAFLEX edo antzerako materialarekin egingo da.

Instalakuntza hauetan ur berogailutik kontsumo puntura jarri beharreko elementuak, hala nola, pasoko giltzak, kontagailuak eta presioa mugatzen duten balbulak ere hartu dira kontutan proiektu hau diseinatzerako orduan.

## **7.11. SANEAMENDU SAREKO INSTALAKUNTZA**

### **7.11.1. SANEAMENDU SAREAREN DISEINURAKO OINARRIAK**

Saneamenduko instalakuntzak Eraikuntzako Kode Teknikoak eta zehatzago izanez, Osasuna eta Higienea dokumentu basikoan (CTE-DB-HS) ezartzen diren baldintzen arabera dimentsionatuko dira.

Proiektuko kokagunean dagoen estolderia sare publikoa unitarioa da, hau da, hondakin eta euri urak batera biltzen ditu kondukzio bakar batetan. Honen ondorioz, proiektuko eraikineko hondakin urak eta euri urak era independentean bilduko dira eta estolderia sare publikora heldu baino lehen kondukzio bakar batean elkartuko dira.

Proiektaturiko instalakuntzaren eskema orokorra era independentean hondakin urak biltzen dituen motakoa da, hau da, hondakin ur bakoitza bere aldetik biltzen dira, ixte hidraulikoekin. Behin lokal bakoitzaren urak bakoitza bere aldetik bildu direnean, biak elkartuko dira eraikinen kanpoko partean kokatuko den arketa baten bitartez. Arketa honetatik, grabitatez sare publikora helduko den kolektore mixto baten bitartez bideratuko dira bildutako hondakin ur guztiak.

Bai hondakin urak baita euri urak bilduko dituzten hodiekin PVC materialez izango dira.



## 7.12. INSTALAZIO HIDRAULIKOEN MANTENIMENDUA

Eraikuntzako Kode Teknikoak eta zehatzago izanez, Osasuna eta Higienea dokumentu basikoan (CTE-DB-HS4) 7.3 atalean ezartzen diren baldintzen arabera iturgintza instalazioak 865/2003 errege dekretuan legionella sortzen dituen arazoak ekiditeko osasun eta higiene irizpideak beteko dira.

Saneamenduko instalazioen estankotasuna aldizka konprobatuko da. Hustuketa emarrietan murrizketa nabarmena nabaritu ezker, poto sifonikoak eta banakako sifoiak garbitu eta gainbegiratuko dira arazoaren zergatia aurkitu arte.

Sei hilabetean behin gunee hezeen eta oinezkoentzat ez diren estalkien estolda zuloak garbituko dira.

Azkenik 10 urtero euri urak eta hondakin ur batzeko proiektaturiko arketa garbituko da, usain txarrik lehenago susmatu ezean.

### 7.13. APARKALEKUA

Ur lasterreko ubideko erabiltzaileak biltegietatik ahalik eta gertuen aparkatzeko, proiektu honetan aparkaleku propio bat diseinatzea erabaki da.

Aparkalekua proiektuko kokalekuaren aurreneko partean egongo da. Aldagelen eta kafetegiaren aurrealdean. 36 kotxeentzako edukiera izango du baina autobusak ezin izango dira bertan geratu. Erabiltzaileak bertan utzi eta gero, Balmasedako beste aparkaleku batera joan beharko dira.

Aparkalekuaren aurreneko partean, bizikletak usteko aparkaleku bereziak (ikusi 23.Irudia) kokatuko dira. Instalazioetara bizikletaz etortzea sustatu nahi delako, bizikletako erabiltzaileentzat %10-eko deskontua egingo zaie ontziak eta ubidea erabiltzeko sarrerak erostean.



23.Irudia. Bizikletentzako aparkalekua

Aparkalekuaren sekzio erresistentea “Aparkalekuaren bide zorua” izeneko eranskinean jarraitutako irizpide eta kalkuluak azaltzen dira.

Inprimatzeko eta itsasteko produktuak	AC16 surf S/D	5 cm
Ontzeko produktuak	Zagor artifiziala	30 cm
Ontzeko produktuak	3 ó 4	50 cm
Ontzeko produktuak	1	> 100cm

24.Irudia. Aparkalekuko bide zoruaaren sekzioa

#### 7.14. OINEZKOENTZAKO PASAGUNEAK

Ur lasterreko ubideko instalazioetan zehar, lau oinezkoentzako egurrez egindako pasaguneak kokatuko dira, instalazioetatik erabiltzaileak erosotasun osoz mugitu ahal izateko.

Lehenengo bi egurrezko pasaguneak, zinta garraiatzailearen (ikusi 10.8.atala) gainetik pasatzeko jarriko dira. Hauek lau metroko zabalera duen zinta gainetik pasatzeko luzera nahikoa izango dute eta bere azpitik inolako arazorik gabe ontziak eta erabiltzaileak pasatzeko argi nahiko izango dute.

Beste bi egurrezko pasaguneak, ur lasterreko ubidearen gainetik pasatzeko diseinatuko dira. Ur lasterreko ubidea 12 metroko zabalarekin diseinatu da. Beraz, instalatuko diren egurrezko pasaguneak aipatutako zabalera hori gainditzeko luzera nahikoa izango dute eta bere azpitik lehiatzen diren erabiltzaileek beraien ontziekin pasatzeko argi nahikoa izango dute.



25.Irudia. Oinezkoentzako pasaguneak

## 7.15. GUNE BERDEAK

Ur lasterreko ubidea eta aldagelen inguruko eremuak landarez eta belarrez inguratuta egongo dira. Eremu hauek instalazioen funtzionaltasuna hobetzeko diseinatu dira, pertsonen mugimendu eroso bermatuz eta lehiaketa garrantzitsuen egunetan harmailak eta zerbitzuak kokatu ahal izateko.

Lehiaketen eta ur lasterreko ubideko ikusmena oztopatzen ez den guneetan, landare eta zuhaixken dentsitatea handiago izango da, hala nola, bi biltegien arteko gunean. Beti ere, landatuko diren landare motak Kadagua ibaiko inguruetan aurkitzen diren landareen antzerakoak izango dira lorezaintza bateratzeko asmoz.

Gune hauek mantenurako ureztatze sistema automatikoa instalatuko da. Beharrezkoa izango den ura, goiko biltegitik lortuko da eta behar izanez gero ponpaketa sistema instalatuko da ura eremu guztietara hel dadin. Gune hauen egokitzapenerako hainbat obra burutzea aurreikusi da:

- Ureztatze sistematako zangak irekitzea eta arketentzako zuloak hondeatzea.
- Arketen eraikitzea eta hoditeria kokatzea.
- Ponpaketa sistema osagarria. Ura puntu guztietara bideratzeko asmoz.
- Zuhaitzak eta zuhaixkak landatzeko beharrezkoak diren zuloak egitea.
- Soropila sortzeko haziak landatzea

Eremu honen barnean umeak jolasteko eta bertan momentu atsegingarri pasatzeko gune bat jartzea aurreikusi da. Gune hau jarraian izendatuko diren osagaiez osatuta egongo da:

- Egurrezko etxetxo batez eta bi txirristez osatutako egurrezko bi multzo.
- Umeak eskalatzeko kordaz osatutako sare bertikala.
- Bueltak ematen dituen bi mahai biribila jesarlekuekin.
- Egurrezkoa jesarlekua duen eta bi umeentzako gaitasuna duten 2 kulunka.
- Eremu guztian zehar banatuta egongo diren egurrezko bankuak eta zakarrontziak.



26.Irudia. Umeentzako jolas-lekua

Eremu guztian zehar banaturik egongo diren zakarrontziak altzairuzko egitura daukate, bestalde ontziak trataturiko egurrezkoa da eta 40L-tako gaitasuna dute. Langileek erraztasunez husteko ontziak eraigarriak izango dira.




27.Irudia. Egurrezko zakarrontziak

Bi metroko zabalera duten egurrezko bankuak, zakarrontzien kasuan bezala bankuen egitura altzairuzkoa da eta jesarlekua trataturiko egurrezkoa



29.Irudia. Egurrezko bankuak

Umeentzako parkea instalatutako osagaiak sortutako gunea mugatzen duen hesi perimetrala batez itxiko da. Aurreko kasuetan erabilitako egur mota berdina erabiliko, ura eta eguzkiaren erasotik babesteko baina koloreztatuta. Hesiak mugatzen duen zorua umeentzako segurtasuna handitzeko kautxuzkoa izango da. Guztira umeentzako gunea 20x15 m<sup>2</sup>-koa da.



30.Irudia. Umeentzako parkeko hesi perimetrala

## 7.16. ITXITURA PERIMETRALA

Instalazioaren perimetro osoan zehar kokatuta egongo den hesi perimetrala jartzea aurreikusi da. Baimenik gabe edo sarrera erosi ez duten pertsonak eta libre bizi diren animaliak ubidera sartzea ekiditeko.

Sarrerako bi ate izango ditu, bata pertsonentzako eta bestea mantenurako ibilgailuentzat izango direnak.

Itxitura fabrikazko murru batean kokatuta egongo da, murrak 0,5 metrotako altuera izango du eta honen gainean hesia kokatuko da 1,5 metrotako altuera duena, amaieran 2 metrotako itxitura lortuz.

Hesia metalikoa izango da eta hau estaltzeko eta ingurumen inpaktua txikitzeko asmoarekin txilar arruntaz estaliko da beheko irudian ikusten den bezala.



31. Irudia. Itxitura perimetrala

### 7.17. ARGIZTAPENA

Ur lasterreko ubidearen inguruan ez da argiztapenik kokatuko. Argirik ez dagoenean kirolean jardutea ezinezkoa baita. Bestalde, froga bezala lehiaketa handi bat gauez antolatu nahi bada, beharrezkoa izango den behin behineko argiztapena kokatzea posiblea izango da.

Eraikinak barrutik argi indarra izango dute. Bai berogailuak baita elektrizitatea beharko duten beste gailu guztiak egoki funtzionatzeko. Eraikinetan kokatuko diren luminariak LED motakoak izango dira eta hauen instalazioa sabaiaren barnetik instalatuko da.


Instalazioetara sartzeko eremuan eta parkingaren inguruan, "Argiztapena" izeneko eranskinean adierazten den bezala 8 farola kokatuko dira. Kokatuko diren luminariak IVH6-250W motakoak izango dira eta 8 metrotako zutabeen goiko partean instalatuko dira. Farola bakoitza bere lurrera jartzea izango du, pika bimetalikoen bitartez burutuko direnak.

Barneko instalakuntzen argiztapenari dagokionez, "Argiztapena" izeneko eranskinean kalkulu luminikoak agertzen dira. Eraikin bakoitzean 6 lanpara kokatuko dira, bakoitza Philips etxeko bi lanpara fluoreszenterekin.

### 7.18. ARRISKU KIROLAK PRAKTIKATZEKO GUNEA

Aldagelen inguruan dagoen eremuan arrisku-kirolak praktikatzeko gunea bat jartzea proiektatu da. Gunea desberdin honen helburu nagusietariko bat, kirol jarduera aniztasuna praktikatu ahal izatea ubideko eremutik mugitu gabe.

Gunea honen barruan, 4 arrisku-kirol desberdin praktikatzeko aukera eskaintzen da. Eskalada, puentig-a, rapell eta tirolina. Kirol hauetan jarduteko beharrezkoa den segurtasun materiala (arnesa, kaskoa, sokak...) ubideko instalazioetan alokatzeko aukera emango da.



32.Irudia. Arrisku-kirolak praktikatzeko kirolak



## 8. BIDERAGARRITASUNA

### 8.1. Bideragarritasun teknikoa

Ur lasterreko ubidea eraikitzeko aukeratu den kokapenean, Fabio Murga izeneko fabrika dago. Fabrika hau lekuz aldatu berri da eta beraz, orubea libre geratu da proiektu hau aurrera eramatea ahalbidetuz.

Ubidez aparte, aldagelak, aparkalekuak eta irisgarritasuna bermatzeko pasabideak eta lehiaketetarako beharrezko baldintza guztiak betetzen dituen ingurune egokia eraikiko da.

Proiektua teknikoki bideragarria izango litzateke, obra era egokian burutzeko beharrezkoa den makineriaren eta langileen irismena ziurtatuta egongo delako.

## 9. LEGE INGURUA

Proiektu hau gauzatzeko bete beharreko legeria, hurrengo puntuetan azaltzen dena da.

- **Bainantzeko uren kalitatearen kudeaketa**
  - *(Real Decreto 1341/2007, de 11 de octubre, sobre la gestión de la calidad de las aguas de baño. BOE nº 257, de 26 de octubre de 2007)*
  - *Directiva 2006/7/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de febrero de 2006, relativa a la gestión de la calidad de las aguas de baño y por la que se deroga la Directiva 76/160/CEE.*
- **Erabiltzaileei, uraren sailkapenari buruz eta beste edozein debeku edo gomendioak biltzen dituen simbología**
  - *Decisión de ejecución de la Comisión 2011/321/UE, que establece un símbolo para informar al público de la clasificación de las aguas de baño y de cualquier prohibición o recomendación que afecte a éste.*
- **Eraikuntzako kode teknikoa**
  - *Código Técnico de la Edificación. REAL DECRETO 314/2006, de 17 de marzo, del Ministerio de Vivienda. B.O.E.: 28-MAR-2007.*
- **Giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun irizpideak**
  - *Criterios sanitarios de la calidad del agua de consumo humano, REAL DECRETO 140/2003, de 7 de febrero, del Ministerio de la Presidencia B.O.E.: 21-FEB-2003.*
- **DB HS. Osasungarritasuna. Eraikuntzako kode teknikoa**
  - *DB HS. Salubridad (Capítulos HS-4, HS-5), Código Técnico de la Edificación. Real Decreto Ministerio de Vivienda 314/2006, de 17 de marzo B.O.E.: 28-MAR-2006*
- **DB AE. Akzioak eraikuntzetan. Eraikuntzako kode teknikoa**
  - *DB AE. Acciones en la edificación, Código Técnico de la Edificación. Real Decreto Ministerio de Vivienda 314/2006, de 17 de marzo B.O.E.: 28-MAR-2006*
- **DB SE. Segurtasun egiturean. Eraikuntzako kode teknikoa**
  - *DB SE. Seguridad en la edificación. (Capítulos HS-4, HS-5), Código Técnico de la Edificación. Real Decreto Ministerio de Vivienda 314/2006, de 17 de marzo B.O.E.: 28-MAR-2006*
- **Legionela prebenitzeko osasun-garbitasun irizpideak**
  - *Criterios higiénico-sanitarios para la prevención y control de la legionelosis, REAL DECRETO 865/2003, de 4 de julio, del Ministerio de Sanidad y Consumo. B.O.E.:18-JUL-2003.*

- **DB HE. Aurrezpen energetikoa**
  - *DB HE. Ahorro de Energía (Capítulo HE-4: Contribución solar mínima de aguacaliente sanitaria), Código Técnico de la Edificación. Real Decreto Ministerio de Vivienda 314/2006, de 17 de marzo B.O.E.: 28-MAR-2006*
  
- **Material sintetikoek obran jartzea**
  - *UNE 104423 1995. Materiales sintéticos. Puesta en obra. Sistemas de impermeabilización de embalses para riego o reserva de agua con geomembranas impermeabilizantes formadas por láminas de poli (cloruro de vinilo) plastificado (PVC-P) no resistentes al betún.*
  
- **Instalazio hauetan eragina duten eta UNE arauaren barne dauden gomendioak ere hartu dira kontutan.**
  
- **Lan arriskuen prebentzioaren araua**
  - *Ley de Prevención de Riesgos Laborales aprobada por Real Decreto 31/1995 de 8 de Noviembre y la Instrucción para la aplicación de la misma (B.O.E. 8/3/1996).*
  
- **Eraiste eta eraikuntzako hondakinak sortu eta kudeatzeko araudia**
  - *Real Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.*
  
- **Kode teknikoak aipatzen dituen UNE arauak**
  
- **Egiturazko homigoia instrukzioa EHE08**
  - *El Real Decreto 1247/2008, de 18 de julio, por el que se aprueba la “Instrucción de hormigón estructural (EHE-08)”*

## 10. BIBLIOGRAFIA

### ERAKUNDEEN WEB GUNEAK

- Euskalmet, Euskal meteorologi zerbitzua. [www.euskalmet.com](http://www.euskalmet.com)
- Bizkaiko Foru Aldundia. [www.bizkaia.com](http://www.bizkaia.com)
- BOE, Boletín Oficial del estado. [www.BOE.com](http://www.BOE.com)
- Balmasedako udala. [www.balmaseda.eus](http://www.balmaseda.eus)

### BESTELAKO WEB GUNEAK

- “La Seu de Urgell- eko ur lasterreko instalazioak. [www.raftingparc.cat](http://www.raftingparc.cat)
- Ponpetako saltzailearen katalogoa. [www.rurhpumpen.com](http://www.rurhpumpen.com)
- Aurrekontua burutzeko webgunea. [www.generadordeprecios.com](http://www.generadordeprecios.com)
- Kalkulu luminikoak. [www.recursos.citcea.upc.edu](http://www.recursos.citcea.upc.edu)
- Philips etxeko luminarien katalogoa. [www.philips.com](http://www.philips.com)

### KLASEKO APUNTEAK

- “Baliabide eta Instalazio hidraulikoen kudeaketa” irakasgaiko apunteak. Eneko Madrazo, 2016.urtea.
- “Eraikuntza eta Obra” irakasgaiko gaia desberdinak. Leire Garmendia, 2017.urtea
- “Egituren teknologia I” irakasgaiko gai desberdinak. Iker Garitaonaindia, 2016.urtea
- “Garraio azpiegituren” irakasgaiko Bide zoruak izeneko gaia. Heriberto Perez, 2017.urtea
- “Sistema elektrikoak” irakasgaiko gai desberdinak. Dunix Marene Larruskain, 2016.urtea

## 11. DOKUMENTUEN ZERRENDA

### 1. DOKUMENTUA. *MEMORIA ETA ERANSKINAK*

#### 1.1. Memoria

#### 1.2. Eranskinak

- 1.2.1. Topografia eta Kartografia
- 1.2.2. Ikasketa geoteknikoa
- 1.2.3. Kalkulu hidraulikoak
- 1.2.4. Ponpen dimentsionaketa
- 1.2.5. Egitura kalkuluak
- 1.2.6. Ur hotzeko horniketa sarea
- 1.2.7. Ur beroko horniketa sarea (A.C.S.)
- 1.2.8. Saneamendu sarea
- 1.2.9. Argiztapena
- 1.2.10. Aparkalekuko bide zorua
- 1.2.11. Eragindako zerbitzuak
- 1.2.12. Hondakinen kudeaketa
- 1.2.13. Segurtasuna eta Osasuna

### 2. DOKUMENTUA. *PLANOAK*

- 2.1. Balmasedako kokapena Bizkaian
- 2.2. Proiektuaren kokapena Balmasedan
- 2.3. Gaur egungo egoera
- 2.4. Elementuen plano orokorra
- 2.5. Goiko ur biltegia
- 2.6. Goiko biltegiko drainatzea
- 2.7. Beheko biltegia
- 2.8. Beheko biltegiko drainatzea
- 2.9. Ur lasterreko ubidearen luzetarako profila
- 2.10. Ur lasterreko ubidearen zeharkako sekzioa
- 2.11. Aparkalekua
- 2.12. Ponpaketa sistema
- 2.13. Eraikinen egitura metalikoa
- 2.14. Eraikinen horniketa sarea
- 2.15. Eraikinen saneamendu sarea
- 2.16. Eraikinen argiztapena
- 2.17. Eragindako zerbitzuak
- 2.18. Segurtasuna eta osasuna

### 3. DOKUMENTUA. *BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA*

### 4. DOKUMENTUA. *AURREKONTUA*

# ERANSKINAK

**I. ERANSKINA:**

**TOPOGRAFIA ETA KARTOGRAFIA**

1. SARRERA.....	3
2. KARTOGRAFIA ETA ERREFERENTZIA SISTEMA.....	4
3. OINARRIZKO SAREA ETA ZUINKETA SAREA .....	5
3.1. Erreferentziako GPS estazioak .....	6



## 1. SARRERA

Eranskin honen helburua, “Ur lasterreko ubidearen eraikuntza” izeneko proiektuaren idazlanerako erabilitako oinarri kartografiakoaren jatorria adieraztea da.

## 2. KARTOGRAFIA ETA ERREFERENTZIA SISTEMA

Proiektu honen barneko ikasketa desberdinen idazketarako erabilitako oinarri kartografiakoa Bizkaiko Foru Aldundiaren web-gunean eskuragarri dagoen kartografia ofiziala erabili da. Beraz, erabilitako kartografia hurrengoa da:

- Bizkaiko Foru Aldundiko 2004 urteko mapa topografikoa (1:20.000)- 41.Zenbakia
- Balmasedako udaletxeko planoak topografikoak (1:20.000)

### 3. OINARRIZKO SAREA ETA ZUINKETA SAREA


Kartografiaren jatorria ikusita, ikasketan ez da oinarrizko sarea eta zuinketa sarea barne dituen ikasketa burutu. Proiektuaren eraikuntzarako beharrezkoak diren topografia datuak lortzeko, existitzen den sare geodesikoa hartu daiteke oinarritzat.

Proiektuaren inguruko erpin geodesikoak begiratuta, IGN-ko ( “Instituto Geográfico Nacional”) erpin geodesiko bat aurkitu da, proiektuaren kokapenetik gertu dagoena. Erpin hau 6092 zenbakia eta “La Garbea” izena du. Jarrain erpin honen deskribapen zehatza azaltzen da.

### 3.1. Erreferentziako GPS estazioak

Gaur egun GPS hargailuen erabilera guztiz ezarrita dago topografia eta geografian zuinketa-lanak eta datu-bilketa egiteko. Mota honetako lanetan 5 metroko zehaztasun handiagoa behar bada, ezinbestekoa da erreferentziako estazioa erabiltzea. Erreferentziako estazioak nola post-tratamendurako hala denbora errealerako gure ekipamendu mugikorrean behar dugun zehaztasuna lortzeko beharrezko datu diferentzialak ematen dizkio erabiltzaileari. Erabiltzaile gehienek egunero landa-eremuan prestatzen dute erreferentziako GPS estazioa, baina ez da halakorik egin behar erreferentziako GPS estazio iraunkorrek. Horrela, Bizkaiko GPS sarea komunitate topografiko eta kartografikoari WEB/FTPn eskuragarri dauden datuak eta GSM eta IP (Internet) bidezko RTCM zuzenketa diferentzialak (zuzenketa estandarrak) emateko sortu zen, zentimetro gutxi batzuetako zehaztasun handiagoa lortze aldera.

Denbora errealean egindako zuzenketak Interneten daude, erabiltzailearen eskura. Nahikoa da Internetera konektatzea zuzenketak jasotzeko. Oso erraza da ia-ia edozein lekutatik Internetera konektatzea GPRS teknologiarri eta UMTS generazio berriari esker. Proiektu honek sekulako onurak dakartzkio topografiaren eta kartografiaren sektoreari. Bistakoena da GPSren erabiltzailea ez dela erreferentziako estazioaz gogoratu ere egingo, denbora errealeko zuzenketak bera dagoen lekutik gertuen dagoen erreferentziako estazio iraunkorretik jaso ahal izango baititu zuzenean. Horri esker, ez du erreferentziako ekipoa geratu beharrik izango eta inbertsioa aurreztu edo bere lehengo erreferentzia ekipa mugikor bihurtu ahal izango du; horrela, bere inbertsioa al bait gehien optimizatuko du.



1.Irudia. Bizkaiko erreferentziako GPS estazioak

Proiektu honen kokapenetik hurbilen dagoen erreferentziako estazio iraunkorra Sopuerta udalerrian kokatuta dagoena da, jarraian estazio honen datuak agertzen dira:

### Geodesikoak

lat = 43 ° 16 36.74301" N

long = 3 ° 09 15.04417 " W

alt.elip = 168.982 m

### Kartesiarrak

x = 4643998.3219 m

y = -255914.4346 m

z = 4350062.7782 m

Sopuertan dagoen erreferentziako estazioa Bizkaiko San Viator eskolako eraikin nagusiaren teilatuan kokatuta dago eta WGS84 elipsoideari dagozkion koordinatuak ditu.



2.Irudia. San Viator eskolako eraikin nagusia

## Reseña Vértice Geodésico

1-may-2018

**Número.....:** 6092  
**Nombre.....:** Garbea  
**Municipios:** Sopuerta; Balmaseda  
**Provincias:** Bizkaia  
**Fecha de Construcción.....:** 22 de julio de 1993  
**Pilar sin centrado forzado...:** 1,20 m de alto, 0,32 m de diámetro.  
**Último cuerpo.....:** 0,20 m de alto, 1,00 m de ancho.  
**Total cuerpos.....:** 1 de 0,20 m de alto.

### Coordenadas Geográficas:

Sistema de Ref.:	ED 50	ETRS89
Longitud.....:	- 3° 11' 34,5375"	- 3° 11' 39,24762" ±0.082 m
Latitud.....:	43° 12' 59,5961"	43° 12' 55,65962" ±0.09 m
Alt. Elipsoidal...:		767,953 m ±0.079 (BP)
Compensación...:	18 de marzo de 1998	01 de noviembre de 2009 Elipse de error al 95% de confianza.

### Coordenadas UTM. Huso 30 :

Sistema de Ref.:	ED 50	ETRS89
X.....:	484329,45 m ( 0.031)	484223,618 m
Y.....:	4784967,81 m ( 0.028)	4784760,137 m
Factor escala....:	0,999603021	0,999603062
Convergencia...:	- 0° 07' 56"	- 0° 07' 59"

Altitud sobre el nivel medio del mar: 717,465 m. (BP)

### Situación:

Situado en la cima del monte Lagarbea, de terreno rocoso, a pocos metros al E. de un repetidor y entre dos casetas.

### Acceso:


Desde Herbosa, que está en la carretera C-6210 Trucios-Balmaseda, parte hacia el S.O. una carretera que a los 2,5 Km. acaba en la casa del guarda, pero sigue una pista por la que se continúa, tomando en la primera bifurcación a la izquierda y subiendo hasta el repetidor, donde acaba en una explanada.

### Horizonte GPS:

Despejado



La Garbea



### Observaciones:

Denominación anterior del vértice era Lagarbea  
 Vértice destruido en las inmediaciones Santo Domingo (60-91).



Cartografía de situación

1-may-2018

Escala 1:25.000

06092 Garbea

Coordenadas ETRS89. Huso 30



**BIZKAIKO MAPA - MAPA DE BIZKAIA**

**OHIKO EZAUGARRIAK - LEYENDAS Y SIMBOLOS**

- Udaltexea Ayuntamiento
- Eliza, basiliza Iglesia, ermita
- Hilerria, gurutze isolatu Cementerio, cruz aislada
- Haitzuloa, dorrea Cueva, torre
- Gaztelua, trikuharria Castillo, dolmen
- Osasun zentroa Centro sanitario
- Gasolindegia Estación de servicio
- Harrobia, meatzea Cantera, mina
- Santutxoa, errota Humilladero, molino
- Kanpina, aterpea Camping, refugio
- Errepikagailua Repetidor
- Transformadorea Transformador
- Aireportua, kirol-komplexua Aeropuerto, complejo deportivo
- Putzua, iturria - iturburu Pozo, fuente - manantial
- Billegia, araztegia Depósito, depuradora
- Hondartza, faroa Playa, faro

- Eraikina Edificios
- Eraikite bideko eraikina Edificios en construcción
- Industriak Industrias
- Beretegiak Invernaderos
- Jausitako eraikina Ruinas
- Kirol-komplexua Complejo deportivo
- Beste eraikin batzuk Otras construcciones
- Billegia Depósito
- Ur-masa Masa de agua


- Errepide izena Nomenclatura de carreteras
- Trenbidea Ferrocarril
- Linea elektrikoa Tendido eléctrico
- Autonomi muga Límite autonómico
- Lurraldearen muga Límite de territorio
- Udalerrri muga Límite municipal
- Kurba hipsometrikoak (100 m.ko) Curva hipsométricas (cada 100 m.)
- Kurba hipsometrikoak (25 m.ko) Curva hipsométricas (cada 25 m.)
- Ibilgu iraunkorra Curso permanente
- Erreka Arroyo
- Ubidea Canal
- Hoditeria Tuberías
- Portuko morrua Espigón portuario
- Esparruak Recintos
- Autopista Autopista
- Autobidea Autovía
- Lehentasuna duen errepidea Carretera de interés preferente
- Oinarritzko sareko errepidea Carretera de red básica
- Errepide osagarria Carretera complementaria
- Eskualdeko errepidea Carretera comarcal
- Tokiko errepidea Carretera local
- Beste errepide batzuk Otras carreteras
- Bidea Camino
- Bidezidorra Senda
- Zubia, tunela Puente, tunel
- Erpin geodesikoa eta testua Texto y vértice geodésico
- Nibelazio-puntua eta testua Texto y punto de nivelación
- Altitude-kotako puntua eta testua Texto y punto de cota de altitud
- Sestra-kurbetako testua Texto curvas de nivel

**TIPOGRAFIA**


- Udalerrria **Dima** Municipio
- Udalburua **BILBAO** Capital de municipio
- Herria **Akorda** Pueblo
- Biztanle-entitate txikia **Matiena** Pequeña entidad de población
- Baserriak, basilizak... **Tosu** Caseríos, ermitas...
- Mendateak **Barazar** Puerto de montaña
- Metroa, trenbidea **Bilbao-Plentzia** Metro, ferrocarril

- Mendia, mendilerroa **Oiz** Monte, sierra
- Lepoa **Nikote** Collado
- Mendi-punta, gailurra **Anboto** Pico, cima y cumbre
- Ingurua **Arraba** Paraje
- Ibaia, erreka **Lea** Río, arroyo
- Kosta, iturriak... **Musisako** Costa, Fuente...
- Urtegiak, aintzirak **Urdandegieta** Embalse, lago
- Babestutako naturaguneak **Urdabai** Espacio natural protegido

**MAPA GIDARIA  
MAPA DIRECTOR**




**HIPSOMETRIA**



Eskala - Escala **1: 20.000**







Artzentales

Sopuerta

Balmaseda

Zalla

Gordexola

BURGOS

BURGOS

49

49

40

31

31

41

2

1

1

1

1

**II. ERANSKINA:**  
**IKASKETA GEOTEKNIKOA**

1.	SARRERA.....	3
2.	PROFIL GEOTEKNIKOA.....	3
3.	PARAMETRO GEOTECNIKOAK .....	4

## 1. SARRERA

Proiektu honetarako erabili den ikasketa geoteknikoa LURGINTZA S.L. enpresak egindakoa da. Baina enpresako langileak espresuki eskatu zuen, proiektuarekin batera ez entregatzea, hau da, konfidentzialtasunez tratatzea. Lortutako kalkulu guztiak erabiltzeko arazorik ez zegoela adierazi zuten.

Ikasketa geoteknikoa, 2009 urtean egin zen Balmaseda “Martin Mendia” eskolen hedatzearen proiekturako. Enpresako teknikariarekin hitz egin zenean, ikasketaren kokapenean eta proiektu honen kokapenean antzerako zorua aurkituko dela adierazi zuen.

Ikasketa egin zen proiektuko kargak eta batez eraikina oso handia zenez, zimentazioa piloteen bidez burutzea gomendatzen zen. Proiektu honetan egingo den eraikinaren tamaina (10x10m) ikusita, piloteak gehiegi dela ondorioztatu de eta zimentazioa zapata isolatu karratuen bidez burutuko da.

## 2. PROFIL GEOTEKNIKOA

Jarrain ikasketa geoteknikoan egindako zundaketen bidez lortutako profila adierazten da.

NIVEL	DENOMINACION	DESCRIPCION
A	Relleno antropogénico	Relleno formado por bloques y gravas de roca mezclados con restos de ladrillo, todo ello en matriz limosa marrón.  Potencia: 0.5 a 1.6 m
B	Limos ocre	Limos arcillosos de color marrón ocre con indicios de arenas y gravas formadas por roca alterada. Comportamiento cohesivo.  Potencia: 4.6 a 5.6 m  SPT: 12 a 16
C	Roca alterada a grado IV -III	Roca alterada a grado IV y roca alterada a grado III que se intercala en tramos decimétricos con niveles de roca grado VI, completamente alterada a arcillas.  Potencia: 1.3 a 2.4 m
D	Sustrato rocoso	Lutitas y areniscas de color negro, sanas, con valores de RQD del 100%.

### 3. PARAMETRO GEOTECNIKOAK

Betegarri heterogeneoak edozein motako zimendua bertan finkatzeko guztiz bazterten dira. Halaber, bere heterogeneitate altua dela eta, buztinez tartekatutako arroka eraldatua duen tartearentzat ezin dira parametro fidagarriak zehaztu.

#### **NIVEL B:** Limos y ocre

Los parámetros se obtienen por correlación de los resultados de los ensayos SPT

Densidad: 2,02 T/m<sup>3</sup>

Cohesión (Cu): 0,81 kg/cm<sup>2</sup>

Módulo edométrico: 55,06 kg/cm<sup>2</sup>

Módulo de elasticidad: 120 kg/cm<sup>2</sup>

#### **NIVEL D:** Sustrato rocos

Resistencia a compresión simple medida con el martillo de Schmidt sobre testigo de sondeo:  
150 kg/cm<sup>2</sup>

**III. ERANSKINA:**  
**KALKUKU HIDRAULIKOAK**

# AURKIBIDEA

KALKULU HIDRAULIKOAK .....	4
<b>1. EGOERA: UBIDE HONDOKO OZTOPOA</b> .....	<b>5</b>
1.1. <u>Emaria 12m<sup>3</sup>/s-ko balioa duenean</u> .....	5
▪ Erregimen normala .....	5
▪ Erregimen kritikoa.....	5
▪ 3 eta 4 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	6
- 3 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	6
▪ 1 eta 2 sekzioen artean <i>Tirante Konjugatuaren Metodoa</i> .....	6
- 2 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	7
▪ 2 eta 3 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	7
1.2. <u>Emaria 6m<sup>3</sup>/s-ko balioa duenean</u> .....	8
▪ Erregimen normala .....	8
▪ Erregimen kritikoa.....	8
▪ 3 eta 4 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	9
- 3 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	9
▪ 1 eta 2 sekzioen artean <i>Tirante Konjokatuaren Metodoa</i> .....	10
- 2 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	10
▪ 2 eta 3 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	10
<b>2. EGOERA: UBIDE SEKZIOAREN BAT-BATEKO MURRIZKETA</b> .....	<b>12</b>
2.1. <u>Emaria 12m<sup>3</sup>/s-ko balioa duenean</u> .....	12
▪ Erregimen normala .....	12
▪ Erregimen kritikoa.....	13

2.2. <u>Emaria 6m<sup>3</sup>/s-ko balioa duenean</u> .....	14
▪ Erregimen normala .....	14
▪ Erregimen kritikoa.....	15
<b>3. <u>EGOERA: SEKZIOAREN MURRIZKETA ETA HONDO OZTOPOA</u></b> .....	<b>16</b>
3.1. <u>Emaria 12m<sup>3</sup>/s-ko balioa duenean</u> .....	16
▪ Erregimen normala .....	16
▪ Erregimen kritikoa.....	17
▪ 3 eta 4 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	17
- 3 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	17
▪ 1 eta 2 sekzioen artean <i>Tirante Konjokatuaren Metodoa</i> .....	18
- 2 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	18
▪ 2 eta 3 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	18
3.2. <u>Emaria 6m<sup>3</sup>/s-ko balioa duenean</u> .....	20
▪ Erregimen normala .....	21
▪ Erregimen kritikoa.....	21
▪ 3 eta 4 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	21
- 3 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	21
▪ 1 eta 2 sekzioen artean <i>Tirante Konjokatuaren Metodoa</i> .....	22
- 2 sekzioaren emariaren karakterizazioa.....	22
▪ 2 eta 3 sekzioetan <i>Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa</i> .....	23
<b>Emitzen eskema orokorra</b> .....	<b>27</b>



Ur lasterreko ubideetan, kirol jarduera era egokian aurrera eramateko asmoz, ibilbidean zehar irregulartasunak sortzea beharrezkoa da eta horretarako mota desberdinetako oztupoak erabiltzen dira. Oztupoek sortuko dituzten irregulartasunen kalkulu zehatzak egitea egokiena litzateke, baina horretarako eskalan egindako modeloak erabiltzen dira. Proiektu honetan horrelakorik egitea aurreikusi ez denez, oztupo jakin batzuek, emari desberdinekin sortzen dituzten aldaketak era hurbildu batean kalkulatu dira.

Jarraian, ubidearen ibilbidean zehar, jarriko diren oztupo desberdinek sortzen dituzten irregulartasunak kalkulatu dira, bi emari ezberdinentzako. Emari bat maximoa izango da eta 12m<sup>3</sup>/s-ko balioa izango du eta beste emaria, aldiz, minimoa eta bere balioa 6m<sup>3</sup>/s-koa izango da. Bi emari hauentzako ur tirantearen balio minimoak lortzen direla frogatu eta gero, tarteko emari guztientzat ere frogatuta geldituko dira.


Maldari dagokionez, malda maximoarekin egingo dira kalkuluak, malda honekin ur tirante balio txikienak lortzen baitira. Malda honen balioa %2,5-ekoa da.

Behin oztupoek sortutako irregulartasunak kalkulatu, oztupo bakoitza ur gora duen eragina zenbateko distantzian zehar hedatzen den kalkulatu da. Ondorioz, oztupoak ubidean zehar jartzeko, berain artean izan beharko duten distantziak, ontziek era egokian mugitzeko behar duten ur tirante minimoa ( $y_{min} = 0,4m$ ) bermatuz, kalkulatu dira.

Horretarako, informazioa bilatu eta gero, beste ubide batzuetan ikusitako oztupo mota desberdinetatik hiru aukeratuko dira eta behin ubidea eraikita dagoenean, aditu baten laguntzaz eta eranskin honetan kalkulatuako distantziak errespetatuz, ubidearen ibilbidearen zehar banatuko dira.

1. Egoera: Ubide hondoko oztopoa

1.1. Emaria 12m<sup>3</sup>/s eta malda %2,5 balioak dituztenean. Ubidearen sekzioa konstantea da ibilbide osoan zehar. Forma trapezoidaleko, zolataren zabalera (b) 8 m-takoa da eta ezponden maldek 1:1 erlazioa jarraitzen dute.



1.Irudia. Ubide hondoko oztopoa 12m<sup>3</sup>/s-ko emariarekin

- Lehengo eta behin, erregimen uniformeari dagokion ur-tirantea edo beste era batera esanda, ur-tirante normala ( $y_n$ ) kalkulatu da:

Erregimen uniformerako Manning-en espresiotik abiatuz:

$$Q = \frac{1}{n} * A * R_h^{2/3} * S^{1/2} \rightarrow \frac{Q * n}{S^{1/2}} = \frac{A^{5/3}}{P^{2/3}} \text{ non,}$$

n, Manning-en zimurtasun koefizientea. n= 0,015

A, urarekin kontaktuan dagoen ubide sekzioaren azalera .  $A = (b + y_n) * y_n$

$R_H$ , Ubide Sekzioaren erradio hidraulikoa.  $R_H = \frac{A}{P} = \frac{(b+y_n)*y_n}{b+2*\sqrt{2}*y_n}$

S, ubidearen batez besteko malda diren. S = 0,025

Datuak ordezkatzuz:

$$\frac{12 * 0,015}{0,025^{1/2}} = \frac{((8 + y_n) * y_n)^{5/3}}{(8 + 2 * \sqrt{2} * y_n)^{2/3}} \rightarrow y_n = y_1 = 0,31m$$

Ur-tirante horri dagokion Energia espezifikoa kalkulatu:

$$E_1 = y + \frac{V^2}{2 * g} = y_1 + \frac{Q^2}{A^2 * 2 * g} = 0,31 + \frac{12^2}{((8 + 0,31) * 0,31)^2 * 2 * 9,8} = 1,40m$$

- Erregimen kritikoaren karakterizazioa 4.Sekzioan:

Horretarako ur-tirante kritikoa ( $y_c$ ) eta abiadura kritikoa kalkulatu dira:

$$\frac{Q^2}{g} = \frac{A_c^3}{T_c} \text{ non } T_c, \text{ ur ispilua den.}$$

Datuak ordezkatzuz,

$$\frac{12^2}{9,8} = \frac{((9,2 + y_c) * y_c)^3}{(9,2 + 2 * y_c)} \rightarrow y_c = 0,57m = 0,6m$$

$$V_c = \frac{Q}{A_c} = \frac{12}{(9,2 + 0,6) * 0,6} = 2,15 \text{ m/s}$$

Aurreko irudiko egoera gertatzen dela egiaztatzeko, 4.sekzioako energia espezifikoa 1.sekzioko energia espezifiko kritikoa baino handiagoa izan behar da. Beraz, 4.sekzioko energia espezifikoa hurrengoa da:

$$E_{c4} = H + y_4 + \frac{V_4^2}{2 * g} = 0,6 + 0,6 + \frac{2,15^2}{2 * 9,8} = 1,44m$$

Beraz, 4 sekzioko energia espezifiko kritikoa, 1 sekzioko energia espezifikoarekin konparatuz, handiagoa da ( $E_{c4} > E_1$ ), irudikatutako egoera egokia da.

- 3 eta 4 puntuen artean, energiaren kontserbazioaren printzipioa aplikatuz, 3 puntuko ur tirantea,  $y_3$ , kalkulatu da. Horretarako, 3 eta 4 puntuek oso gertu daudenez, beraien arteko energia galera,  $\Delta h_{3-4}$  eta kota diferentzia,  $z_3 - z_4$  balio nuluak izango dituzte. Eta 4 puntuan urak izango duen tirantea, ur-tirante kritikoa ( $y_c$  izango da.

$$z_3 + y_3 + \frac{V_3^2}{2 * g} = z_4 + y_4 + \frac{V_4^2}{2 * g} + \Delta h + H$$

Aurreko formulatan datuak ordezkatzean, hurrengoa lortzen da:

$$y_3 + \frac{12^2}{[(8 + y_3) * y_3]^2 * 2 * 9,8} = 0,6 + 0,6 + \frac{2,15^2}{2 * 9,8}$$

$$y_3 + \frac{12^2}{[(8 + y_3) * y_3]^2 * 2 * 9,8} = 1,44m \rightarrow y_3 = 1,45m$$

$$V_3 = \frac{Q}{A_3} = \frac{12}{(8 + 1,45) * 1,45} = 0,88 \text{ m/s}$$

Iterazio prozesuaren bitartez, hiru emaitza lortzen dira, baina bi-ren balioak baztertuko dira, eta  $y_3 = 1,45m$  -tako balioa hartuko da. Baztertutako emaitzak bata negatiboa eta bestea superkritikoa, hau da, tirante kritikoa baino txikiagoa izango direlako baztertzen dira.

- 1 eta 3 sekzioen artean gertatzen dena ezagutzeko, eta kurba mota aztertzeko, lehenengo eta behin puntu horietan Froude-ren zenbakia ezagutu behar da.

$$Fr_1 = \frac{V_1}{\sqrt{g * \frac{A}{T}}} = \frac{4,63}{\sqrt{9,8 * \frac{(8 + 0,312) * 0,312}{8 + 2 * 0,312}}} = 2,69 > 1 \rightarrow \text{Jario Superkritikoa}$$

$$Fr_3 = \frac{V_3}{\sqrt{g * \frac{A}{T}}} = \frac{0,88}{\sqrt{9,8 * \frac{(8 + 1,45) * 1,45}{8 + 2 * 1,45}}} = 0,25 < 1 \rightarrow \text{Jario Subkritikoa}$$

Chow-ren tirante konjugatua kalkulatzeko formula erabiliz, 2 sekzioan izango den ur tirantea kalkulatu da.

$$Y = \frac{y_2}{y_1} = (10,28 \cdot i + 1,18) \cdot F_1 = 3,86 \rightarrow y_2 = 3,86 \cdot 0,31m = 1,19m$$

$$V_2 = \frac{Q}{A_2} = \frac{12}{(8 + 1,19) * 1,19} = 1,10 m/s$$

Beraz,  $y_2$  eta  $y_3$   $y_c$  eta  $y_n$  direnez  $\rightarrow$  **S1** kurba mota dagokio.

- Azkenik, kalkulatu nahi den L distantziaren balioa lortzeko, 2 eta 3 punturen artean Energiaren Kontserbazioaren Printzipioa aplikatuko da. Oraingoan  $\Delta h_{2-3} = Sf * L$  izango da eta  $z_2 - z_3 = S_0 * L$ .

$$z_2 + y_2 + \frac{V_2}{2 * g} = z_3 + y_3 + \frac{V_3}{2 * g} + \Delta h_{2-3}$$

$$S_0 * L + y_2 + \frac{V_2}{2 * g} = y_3 + \frac{V_3}{2 * g} + Sf * L$$

$Sf$ -ren kalakulua:

$$Sf = \frac{V_m^2 * n^2}{R_{Hm}^{4/3}} = \frac{0,99^2 * 0,015^2}{0,90^{4/3}} = 2,54 * 10^{-4}$$

$$V_m = \frac{V_2 + V_3}{2} = \frac{0,88 + 1,10}{2} = 0,99 m/s$$

$$R_{Hm} = \frac{R_{H2} + R_{H3}}{2} = \frac{0,83 + 0,96}{2} = 0,90m$$

$$R_{H2} = \frac{A_2}{P_2} = \frac{(8 + 1,19) * 1,19}{8 + 2 * \sqrt{2} * 1,19} = 0,96m$$


$$R_{H3} = \frac{A_3}{P_3} = \frac{(8 + 1,45) * 1,45}{8 + 2 * \sqrt{2} * 1,45} = 1,13m$$

Hasierako formulatik L bakanduz, hurrengo formula lortzen da:

$$L = \frac{\left(y_2 + \frac{V_2^2}{2 * g}\right) - \left(y_3 + \frac{V_3^2}{2 * g}\right)}{Sf - S_0} = \frac{\left(1,19 + \frac{1,1^2}{2 * 9,81}\right) - \left(1,45 + \frac{0,88^2}{2 * 9,81}\right)}{2,54 * 10^{-4} - 0,025}$$

$$L = 9,60m$$

1.2. Emaria 6 m<sup>3</sup>/s eta malda %2,5 baliok dituztenean. Ubidearen sekzioa konstantea da ibilbide osoan zehar. Forma trapezoidaleko, zolataren zabalera (b) 8 m-takoa da eta ezponden maldek 1:1 erlazioa jarraitzen dute.



2. Irudia. Ubide hondoko oztopoa 6m<sup>3</sup>/s-ko emariarekin

- Lehengo eta behin, erregimen uniformeari dagokion ur-tirantea edo beste era batera esanda, ur-tirante normalaren ( $y_n$ ) balioa kalkulatu da:

Erregimen uniformerako Manning-en espresiotik abiatuz:

$$Q = \frac{1}{n} * A * R_H^{2/3} * S^{1/2} \rightarrow \frac{Q * n}{S^{1/2}} = \frac{A^{5/3}}{P^{2/3}} \text{ non,}$$

$n$ , Manning-en zimurtasun koefizientea.  $n = 0,015$

$A$ , urarekin kontaktuan dagoen ubide sekzioaren azalera.  $A = (b + y_n) * y_n$

$R_H$ , Ubide Sekzioaren erradio hidraulikoa.  $R_H = \frac{A}{P} = \frac{(b+y_n)*y_n}{b+2*\sqrt{2}*y_n}$

$S$ , ubidearen batez besteko malda diren.  $S = 0,025$

Datuak ordezkatzuz:

$$\frac{6 * 0,015}{0,025^{1/2}} = \frac{((8 + y_n) * y_n)^{5/3}}{(8 + 2 * \sqrt{2} * y_n)^{2/3}} \rightarrow y_n = y_1 = 0,21m$$

Ur-tirante horri dagokion Energia espezifikoa kalkulatu:

$$E_1 = y + \frac{V^2}{2 * g} = y_1 + \frac{Q^2}{A^2 * 2 * g} = 0,21 + \frac{6^2}{((8 + 0,21) * 0,21)^2 * 2 * 9,8} = 0,82m$$

- Erregimen kritikoaren karakterizazioa

Horretarako ur-tirante kritikoa ( $y_c$  eta abiadura kritikoa kalkulatu dira:

$$\frac{Q^2}{g} = \frac{A_c^3}{T_c} \text{ non } T_c, \text{ ur ispilua den.}$$

Datuak ordezkatzuz

$$\frac{6^2}{9,8} = \frac{((9,2 + y_c) * y_c)^3}{(9,2 + 2 * y_c)} \rightarrow y_{c4} = 0,4m$$

$$V_c = \frac{Q}{A_c} = \frac{6}{(9,2 + 0,4) * 0,4} = 1,6 \text{ m/s}$$

Aurreko irudiko egoera gertatzen dela egiaztatzeko, 4. sekzioko energia espezifiko 1. sekzioko energia espezifiko kritikoa baino handiagoa izan behar da. Beraz, 4. sekzioko energia espezifiko hurrengoa da:

$$E_{c4} = H + y_4 + \frac{V_4^2}{2 * g} = 0,6 + 0,4 + \frac{1,6^2}{2 * 9,8} = 1,13m$$

Beraz, 4 sekzioko energia espezifiko kritikoa, 1 sekzioko energia espezifikoarekin konparatuz, handiagoa da ( $E_{c4} > E_1$ ), irudikatutako egoera egokia da.

- 3 eta 4 puntuen artean, energiaren kontserbazioaren printzipioa aplikatuz, 3 puntuko ur tirantea,  $y_3$ , kalkulatu da. Bestalde, 3 eta 4 puntuek oso gertu daudenez, beraien arteko energia galera,  $\Delta h_{3-4}$  eta kota diferentzia,  $z_3 - z_4$  balio nuluak izango dituzte. Eta 4 puntuan urak izango duen tirantea, ur-tirante kritikoa ( $y_c$  izango da.

$$z_3 + y_3 + \frac{V_3^2}{2 * g} = z_4 + y_4 + \frac{V_4^2}{2 * g} + \Delta h + H$$

Aurreko formulatan datuak ordezkatzean, hurrengoa lortzen da:

$$y_3 + \frac{6^2}{[(8 + y_3) * y_3]^2 * 2 * 9,8} = 0,6 + 0,4 + \frac{1,8^2}{2 * 9,8}$$

$$y_3 + \frac{6^2}{[(8 + y_3) * y_3]^2 * 2 * 9,8} = 1,16m \rightarrow y_3 = 0,95m$$

$$V_3 = \frac{Q}{A_3} = \frac{6}{(8 + 0,95) * 0,95} = 0,71 \text{ m/s}$$

Iterazio prozesuaren bitartez, hiru emaitza lortzen dira, baina bi-ren balioak baztertuko dira, eta  $y_3 = 0,95m$  -tako balioa hartuko da. Baztertutako emaitzak bata negatiboa eta bestea superkritikoa, hau da, tirante kritikoa baino txikiagoa izango direlako baztertzen dira.

- 1 eta 3 sekzioen artean gertatzen dena ezagutzeko, eta kurba mota aztertzeko, lehenengo eta behin puntu horietan Froude-ren zenbakia ezagutu behar da.

$$Fr_1 = \frac{V_1}{\sqrt{g \cdot \frac{A}{T}}} = \frac{3,5}{\sqrt{9,8 \cdot \frac{(8 + 0,21) \cdot 0,21}{8 + 2 \cdot 0,21}}} = 2,47 > 1 \rightarrow \text{Jario Superkritikoa}$$

$$Fr_3 = \frac{V_3}{\sqrt{g \cdot \frac{A}{T}}} = \frac{0,71}{\sqrt{9,8 \cdot \frac{(8 + 0,95) \cdot 0,95}{8 + 2 \cdot 0,95}}} = 0,24 < 1 \rightarrow \text{Jario Subkritikoa}$$

Lanak exekutatzeko dituen enpresa amianto arriskuko erregistroan egongo da. Langileek heziketa egokia izan beharko dute.

## 15. ISTRIPU LABORALAREN KASUAN PREBENTZIOA

### 15.1. LEHEN SOROSPENERAKO BOTIKINA

Obran lehen sorospenerako botikina egongo da, momentuan biktimei sorosteko.

Edukiera, ezaugarriak eta erabilera osasun eta segurtasun baldintza teknikoen pleguan definituta egongo dira.

### 15.2. PREBENTZIO MEDIKUNTZA

Gaixotasun profesionalak eta istripuak ekiditeko Kontratatistak eta Azpi-kontratatistak errekonozimendu medikuak egin beharko dituzte langileak kontratatu aurretik, legedia betez. Baita ere, azpikontrataturako enpresei eskatuko zaie.

Errekonozimendu medikoetan, detektatuko da pertsonen muga fisiko edo psikikoak egokiak direla egingo duten lanentzako.

Pleguan adierazten dira istripu eta mediku asistentziaren betebeharrak enpresarialak.

### 15.3. BIKTIMEN EBAKUAZIOA

Biktimen ebakuazioa, kontratatutako anbulantzia zerbitzu baten bidez egingo da, pleguan definitzen den arabera.



## 16. OBRA BITARTEAN SEGURTASUN ETA OSASUN ARDURADUNEN IZENDATZE DOKUMENTUAK

Aurreikusten da Kontratastak funtzio honetarako erabiltzen dituen dokumentu berdinak erabiltzea, bere arriskuen prebentzioan ez eragiteko. Hala ere, formaltasun batzuk beteko dira, baldintzen pleguan adierazten direnak, eta osasun eta segurtasunezko koordinatzaileak ezagutu behar ditu bere planean sartzeko.

Minimoki, hurrengoko listan agertzen diren edukiak erabiliko dira:

- Segurtasunaren arduradunaren izendatzearen dokumentua.
- Maniobra seinalizten izendatzearen dokumentua.
- Makinak erabiltzeko baimen dokumentuak.

## 17. SEGURTASUN ETA OSASUN HEZIKETA ETA INFORMAZIOA

Langileen heziketa eta informazioa jasan dezaketen arrisku laboralei eta lan egiteko metodo seguruei buruz, oinarritzkoak dira arriskuak eta istripuak ekiditeko.

Kontratista legalki behartuta dago bere langile guztiei lan seguruan trebatzera, langile guztiek bere lanak suposatzen duen arriskua jakinez. Era berean, nola erabili babes kolektibo eta indibidualak eta nola jokatu. Baldintzen Pleguak jarraibideak ematen ditu Kontratistak bere Segurtasun eta Osasun Planean garatu ditzan.

## 18. AURREKONTUA

Código	Ud	Resumen	CanPres	Pres	ImpPres
<b>01</b>		<b>PROTECCIONES COLECTIVAS</b>	<b>1</b>	<b>2.055,08</b>	<b>2.055,08</b>
01.01	ml	Valla de protección en el perímetro del vaciado de la	150,00	5,21	781,50
01.02	ml	Barandilla de protección para rampas de escalera	100,00	4,81	481,00
01.03	ud	Extintor de incendios de dióxido de carbono ( CO2 ) de	3,00	121,70	365,10
01.04	ud	Extintor de incendios de polvo seco polivalente de 6 kg	3,00	63,11	189,33
01.05	ud	Señal indicadora normalizada, colocada en los accesos	1,00	51,10	51,10
01.06	ud	Tapas de protección arquetas	5,00	5,41	27,05
01.07	P.A	Iluminación provisional interior	1,00	160,00	160,00
		<b>TOTAL CAPITULO 01</b>	<b>1</b>	<b>2.055,08</b>	<b>2.055,08</b>
<b>02</b>		<b>PROTECCIONES PERSONALES</b>	<b>1</b>	<b>2.120,09</b>	<b>2.120,09</b>
02.01	ud	Casco de plástico homologado. Norma MT-1	10,00	3,01	30,10
02.02	ud	Pareja de botas de goma, de medida caña para el agua.	10,00	10,82	108,20
02.03	ud	Pareja de botas de goma, de caña alta para el agua.	10,00	15,03	150,30
02.04	ud	Pareja de botas con plantilla o suela reforzada. Norma	10,00	36,06	360,60
02.05	ud	Pareja de botas con puntera reforzada. Norma MT-5	10,00	33,06	330,60
02.06	ud	Pareja de botas con suela antideslizante. Norma MT-5	10,00	24,10	241,00
02.07	ud	Buzos de trabajo, de pantalón y cuerpo en una sola	10,00	21,16	211,60
02.08	ud	Trajes impermeables para el agua, de pantalón,	10,00	27,05	270,50
02.09	ud	Pareja de guantes de goma reforzada	12,00	4,00	48,00
02.10	ud	Pareja de guantes de cuero o lona reforzada	10,00	3,01	30,10
02.11	ud	Pareja de guantes aislantes eléctricos, homologados.	2,00	6,01	12,02
02.12	ud	Mascarillas antipolvo, dotadas de 10 filtros de	2,00	42,68	85,36
02.13	ud	Gafas de protección homologadas	2,00	21,00	42,00
02.14	ud	Orejas de protección contra el ruido	2,00	6,98	13,96
02.15	ud	Cinturón de seguridad y sujeción homologado. Norma	5,00	37,15	185,75
		<b>TOTAL CAPITULO 02</b>	<b>1</b>	<b>2.120,09</b>	<b>2.120,09</b>
<b>03</b>		<b>INSTALACIONES PROVISIONALES</b>	<b>1</b>	<b>5.570,00</b>	<b>5.570,00</b>
03.01	ud	Acometida provisional de instalación eléctrica a obra y	1,00	500,00	500,00
03.02	ud	Acometida provisional de red de agua	1,00	250,00	250,00
03.03	ud	Acometida provisional a la red de saneamiento	1,00	120,00	120,00
03.04	ud	Limpieza periódica de instalaciones durante duración de la obra	1,00	800,00	800,00
03.05	P.A	Alquiler de caseta para almacenamiento de materiales	1,00	1.000,00	1.000,00
03.06	P.A	Alquiler de caseta para vestuarios durante la obra	1,00	1.300,00	1.300,00
03.07	P.A	Alquiler de caseta prefabricada para aseos	1,00	1.600,00	1.600,00
		<b>TOTAL CAPITULO 03</b>	<b>1</b>	<b>5.570,00</b>	<b>5.570,00</b>
		<b>TOTAL SEGURIDAD Y SALUD</b>	<b>1</b>	<b>9.745,17</b>	<b>9.745,17</b>

## 19. ONDORIOAK

Memoria honetan eta Segurtasun eta Osasun Azterketa osatzen duten beste dokumentuetan, definituta gelditzen dira proiektuan jasotzen diren lanak gauzatzeko beharrezko prebentzio neurriak.

Proiektuan aldaketarik badago, Azterketa honetan eragiten duten aldaketak egiaztatzea. Beharrezkoa izanez gero, aldaketak idatziko dira.

**X. ERANSKINA:**

**APARKALEKUKO BIDE-ZORUA**

1.	SARRERA.....	4
2.	PROIEKTUKO TRAFIKOA .....	5
2.1.	Proiektuko trafiko kategoria .....	5
3.	ZELAIGUNE HOBETUA .....	6
3.1.	Zelaigune kategoria .....	6
3.2.	Eusteko gaitasuna .....	8
4.	BIDE ZORURAKO MATERIALAK.....	9
4.1.	BEROAN EGINDAKO NAHASTE BITUMINOSOAK .....	9
4.1.1.	Errodadura geruzak .....	9
4.1.2.	Tarteko geruzak.....	10
4.1.3.	Oinarrizko geruzak.....	10
4.2.	HOTZEAN EGINDAKO NAHASTE BITUMINOSOAK .....	10
4.2.1.	Errodadura geruzak .....	11
4.2.2.	Tarteko edo oinarrizko geruzak.....	11
4.3.	HARTXINTXAR BIDEZKO GAINAZALEKO TRATAMENDUAK.....	11
4.5.	ZEMENTU LURZORUA.....	15
4.6.	ZAGOR ARTIFIZIALA .....	16
4.7.	PRODUKTUAK ZABALTZEA.....	17
4.7.1.	Itsasteko produktuak zabaltzea .....	17
4.7.2.	Inprimatzeko produktuak zabaltzea.....	17
4.7.3.	Ontzeko produktuak zabaltzea .....	17





---

5.	SEKZIOEN KATALOGOA.....	18
5.1.	1 motako sekzioak.....	18
5.2.	2 motako sekzioak.....	22
6.	BIDE-ZORU SEKZIOAREN KALKULUA .....	26

## 1. SARRERA

Aparkalekuaren bide-zoruaren sekzio erresistentea kalkulatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko araua erabiliko da. Arau hau 2007ko uztailaren 12an sartu zen indarrean. 2012ko azaroan argitaraldia berrikusia eta zabaldua argitaratu de, aldaketa txiki eta egokitze batzuekin.



### 1.1rudia. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko araua

Errepide bateko bide-zoruaren neurketa, errepidea egingo den lurren ezaugarriek eta proiektu-ean aurreikusten den trafikoak baldintzatzen dute. Neurtzeko, ondoren aipatuko ditugun azterketak egin behar dira, eta eraikuntza-proiektuaren bide-zoruen eranskinean sartuko dira. Azterketak:

1. Proiektuko denboraldian bide-zorruak jasango duen trafikoaren analisia.
2. Gurutzatutako lurren ezaugarri geoteknikoak eta lurreko obren definizioa.
3. Bide-zoruko geruza eta zelaigunetarako lurzoru eta material eskuragarriak identifikatzea.
4. Zelaigune Onduaren definizioa.
5. Bide-zorruak neurtzea eta errodadura-geruza aukeratzea.
6. Bide-zorrua behar bezala egiteko, obra programatzea.



## 2. PROIEKTUKO TRAFIKOA

### 2.1. Proiektuko trafiko kategoria

Proiektu Trafikoa, proiektuaren epean, proiektuko erreian zirkulatzea aurreikusten duten ibilgailu astunen kopurua bezala definitzen da. Proiektu Trafikoa kategorietan sailkatuko da, 1.1. taularen arabera.

KATEGORIA		PT (milioitan)
T00		43,8 – 87,6
T0		21,9 – 43,8
T1	T1A	15,3 – 21,9
	T1B	8,8 – 15,3
T2	T2A	4,4 – 8,8
	T2B	2,2 – 4,4
T3	T3A	1,1 – 2,2
	T3B	0,55 – 1,1
T4	T4A	0,27 – 0,55
	T4B	< 0,27

**1.Taula.Proiektuko Trafiko Kategoriak**

Arau honen inguruan, honako elementu hauek hartuko dira kontuan:

- Bestelako arrazoirik ematen ez badute, bide-zoruko egiturak neurtzeko proiektua 20 urterako izango da.
- Proiektuko erreia, Proiektu Trafiko handiena duena izango da.
- Autobide, autobia eta galtzada bikoitzeko errepideetako proiektuko erreia, gutxienez, T1B kategoriarekin sailkatuko da.
- Zerbitzuko errepideetarako eta errepide-adarretarako trafikoaren inguruko kalkulurik ez badugu, errepide nagusirako definitutakoa baino hiru trafiko-kategoria beherago sailkatuko dira. Autobia-amaierako adarren, trafiko handiko bideen arteko konexio zuzenen edo industria-zonetako zerbitzu-bideen kasuan, trafikoaren azterketa espezifikoa egin beharko da.

Proiektatuko den bide-zoruko egitura aparkaleku baterako izango denez, erabiliko den trafiko kategoria baxuena izango da, bertatik ibiliko diren ibilgailu astunen kopurua nahiko murriztua izango delako. Beraz, 1.Taularen arabera, **Proiektuko Trafiko Kategoria T4B** izango da.

### 3. ZELAIGUNE HOBETUA

**Zelaigune Hobetua** da (ikus 2.Irudiko eskema), lurzoru-geruzen edo ekarpen-materialen multzoa, edo bide-zoruaren azpian dauden egonkortzea. Horrela, bidezoruko zimenduaren euste-ahalmena hobetu eta homogeneizatu, eraikuntza-lanak erraztu, iragazkaiztearen edo hustuketaren bidez lurzoruak uraren eraginez babestu, eta beharrezko azalera geometrikoak lortu nahi dituzte. Zelaigune Hobetua, Azpiko Lurren gainean jartzen da. Lur hauek, arlo naturalean, lurzoru naturalari dagokionean, ebakidura-hondoak osatuak daude, ekarpeneko materialak edo lurzoruak lubeten nukleoak, edo harbeta edo zagorbetegarrizko trantsizio-geruzez; eta bi egiturek mendi-hegal ertaineko sekziotan ematen dira. Zelaigune Planoa, Zelaigune Hobetuaren goialdeko azalera da, eta honen gainean ezartzen da bide-zorua.



2. Irudia. Bide-zoru eta zelaiguneko egituren eskema orokorra

#### 3.1. Zelaigune kategoria

Eusteko gaitasunaren arabera, Zelaigune Hobetuko hiru kategoria ezartzen dira: EX1, EX2 eta EX3. Beharrezko gutxienezko kategoria, Proiektu Trafikoaren funtzioa izango da (ikus 2. taula).


PROIEKTU TRAFIKOA	ZELAIGUNE HOBETUKO KATEGORIA
T2A edo handiagoa	EX2 edo EX3
T2B edo txikiagoa	EX1, EX2 edo EX3

2.Taula. Zelaigune Hobetuko beharrezko kategoria

Proiektuko Trafiko kategoria T4B dela aurreko atalean ondorioztatu denez, Zelaiguneko Hobetuko Kategoria EX2 edo EX3 aukeratuko da.

Jarraian, trazatuan dauden materialen arabera zelaigunearen osaera ezartzen da. Ikasketa geoteknikoaren arabera, trazatuko materialak EGOKIA 1 sailkapenaren barnean sartzen dira. Beraz, zelaigunearen osatzea jarraian (ikus 3.Irudia) agertzen dena izango da.

T.S.	EZEGOKIA IN	ONARGARRIA 0	EGOKIA 1	AUKERATUA	ARROKA
EX1					
EX2					
EX3					



(1) Obrako Zuzendaritzak onartu ondoren, ebaketaren handirik, finketa egoki baten bidez, geruza hau jartzea saihestu ahal izango zen.

3.Irudia. Zelaigune Hobetuko Sekzioen Katalogoa

Azkenik zelaigunean lortu behar den eusteko gaitasuna finkatzen da.

### 3.2. Eusteko gaitasuna

Zelaigunearen eusteko gaitasuna, konprimigarritasun-moduluak<sup>2</sup>, EV2, definituko du. Modulu hau, NLT-357/98 arauaren arabera plaka bidezko karga-entseguko bigarren zikloan, eta kargako lehen eta bigarren zikloen konprimigarritasun-moduluaren arteko erlazioan, K, lortuko da. Zelaigune Planoarekiko EV2-ren gutxieneko balioak eta Kren gehienekoak 2. Taulan adierazitakoak izango dira. Dena den, adierazitako maximoen gainera egongo diren Kren balioak onartuko dituzte, kargako lehen zikloaren konprimigarritasun-moduluaren balioa, EV1 gutxienez bigarrenean exijitutakoaren %70 baldin bada. Lurzoru egonkortuko geruzetan ez dute konprimigarritasun-modulua exijitzeko beharrik.

ZELAIGUNE HOBETUKO KATEGORIA	E <sub>v2</sub> , NLT-357/98 Arauaaren arabera	K (E <sub>v2</sub> /E <sub>v1</sub> ), NLT-357/98 Arauaaren arabera	
		Exijitutako dentsitatea ≥ 103% PM	Exijitutako dentsitatea < 103% PM
EX1	≥ 120 MPa	≤ 2,2	≤ 2,5
EX2	≥ 200 MPa		
EX3	≥ 300 MPa		

**3.Taula. Zelaigune planoaren gutxieneko eusteko gaitasuna**

Proiekturako datu nahikorik existitzen ez direlako eta bide-zorua aparkaleku bat osatzeko erabiliko denez, bete behar dituen baldintzak minimoak izango dira. Beraz, EX2 eta EX3 zelaigune hobetuko kategorien artean, baldintza minimoak ezartzen dituen aukeratu da. Hau da, **EX2** zelaigune hobetuko kategoria.

#### 4. BIDE ZORURAKO MATERIALAK

Arau honetan definitutako bide-zoru sekziotan, ondoren aipatuko ditugun materialak aukeratu dira:

- Beroan egindako nahaste bituminosoak
- Hotzean egindako nahaste bituminosoak
- Hotzean egindako mikroaglomeratuak
- Kare-esne bituminosoak
- Hartxintzar bidezko gainazaleko tratamenduak
- Hartxintzarra eta zementua
- Zementu-lurzorua
- Zagorrak
- Itsasgarritasun, inprimazio eta ontzeko produktuak zabaltzea.

Bakoitzaren espezifikazioak (emultsio-hartxintxako eta irekian burututako hotzean egindako nahasteak salbuetsita), Sustapen Ministerioaren Errepide eta Zubietako Obretarako Baldintza Tekniko Orokorren Agiriari (PG-3) dagozkion artikuluetan definitzen dira. Bestalde, obra bakoitzeko proiektuak, hurrengo epigrafeetan adierazten diren aginduak hartu beharko ditu kontuan. Kontraesanak egonez gero, agindu horiek PG-3koen gaineratik egongo dira.

##### 4.1. Beroan egindako nahaste bituminosoak

Orokorrean, nahaste bituminosoa, goitik behera, honela banatuko da: errodadura-geruza bat, tarteko geruza bat, hala badagokio, eta oinarritzko geruza bat edo gehiago. Geruza bakoitzaren lodiera, gainekoaren berdina edo handiagoa izango da, eta orokorrean, ahalik eta geruzakopuru txikiena proiektatzeko joera izango dute. Katalogoetan definitutako guztizko lodiera osatzeko aukeratutako nahaste bituminosoen konbinazioak, edozein kasutan, kapitulu honetan definitutako nahaste-motei eta gutxieneko lodierei buruzko irizpideak errespetatuko ditu.

Labe elektrikoko altzairutegiko agregakin siderurgikoak, galtzada zein bazterbideetan trafikiko astuneko kategoria guztietarako erabili ahal izango dituzte, 3. eranskinean exijitutako preskripzio teknikoak betetzen badituzte eta materialen jatorria aitortzen badute, gai hauen inguruan Batasuneko legerian zehazten duten bezala.

##### 4.1.1. Errodadura geruzak

PG-3ren 542. artikuluan definitutako AC surf trinko (D) eta erditrinko (S) motetako beroan egindako hormigoi bituminosoak erabili ahal izango dira. Halaber, PG-3ren 543. artikuluan definitutako BBTM A eta B beroan egindako etenak eta PA nahaste bituminoso drainatzaileak ere erabili ahal izango dira. Bakoitza aplikatzeko baldintzak, 4. Taulan “Nahaste bituminosoen erabilera errodadura-geruzan” adierazten dira.

Debekatua dago nahaste bituminoso zaharretako material birziklatua erabiltzea.

Bestelakorik justifikatzen ez badute, bazterbideetan, errodadura-geruza mota eta horren lodiera ezarriko dituzte.

Trafiko handi eta aldapa txikiko zuzenguneetan drainatze-nahasteen erabilerari lehentasuna emango diote, beti ere 4. Taulan adierazitako baldintzak betetzen badira.

#### 4.1.2. Tarteko geruzak

PG-3aren 542. artikuluan definitutako trinko (D), erditrinko (S) eta modulu altukoak (MAM) motako AC bin hormigoi bituminosoak erabili ahal izango dituzte. Bakoitza zein baldintzetan aplikatu behar den jakiteko, ikus "Azpiko geruzetan nahaste bituminosoen erabilera" izeneko 5.Taula.

T1 trafikoarekin edo trafiko txikiagoarekin, galtzadan, nahaste bituminoso zaharren material birziklatuaren %10 arte erabili ahal izango dute. Bazterbideetan %30 arte.

Modulu altuko nahasteek (MAM) ezingo dute nahaste bituminoso zaharrez osatutako material birziklatua izan.

#### 4.1.3. Oinarrizko geruzak

PG-3aren 542. artikuluan definitutako AC base hormigoi bituminoso erditrinko (S), lodi (G) eta modulu altukoak (MAM) erabili ahal izango dituzte. Bakoitza zein baldintzetan aplikatu behar den 5. taulan adierazten da.

T1 trafikoarekin edo trafiko txikiagoarekin, nahaste erditrinko (S) edo lodien (G) %25, galtzadan birziklatutako materialez osatua egon daiteke, eta %30 arte bazterbideetan.

Modulu altuko nahasteek (MAM) ezingo dute nahaste bituminoso zaharrez osatutako material birziklatua izan.

### 4.2. HOTZEAN EGINDAKO NAHASTE BITUMINOSOAK

Orokorrean, nahaste bituminosoa, goitik behera, honela banatuko da: errodadura-geruza bat, tarteko geruza bat, eta oinarrizko geruza bat edo gehiago. Azpiko geruzaren lodiera, gainekoaren berdina edo handiagoa izango da, eta orokorrean, ahalik eta geruza-kopuru txikiena proiektatzeko joera izango dute. Katalogoetan definitutako gutzizko lodiera osatzeko aukeratutako nahaste bituminosoen konbinazioak, edozein kasutan, kapitulu honetan definitutako nahaste-motei eta gutxieneko lodierei buruzko irizpideak errespetatuko ditu.

Labe elektrikoko altzairutegiko agregakin siderurgikoak, galtzada zein bazterbideetan proiektu-trafikoko kategoria guztietarako erabili ahal izango dituzte, "Nahaste bituminosoetarako labe elektrikoko agregakin siderurgikoak" izeneko 3. eranskinean sartzen den artikuluan exijitutako agindu teknikoak betetzen badituzte eta materialen jatorria aitortzen badute, gai hauen inguruan batasuneko legerian zehazten duten bezala.

#### 4.2.1. Errodadura geruzak

PG-3ren 540. artikuluan definituta, hotzean egindako mikroaglomeratuak eta Emultsio Bituminosoen Elkarte Teknikoak (ATEB) landutako hotzean egindako Nahaste Bituminoso Irekien Orrian definitutako hotzean egindako nahaste bituminoso irekien (AF) nahasteak erabili ahal izango dira. Obra-unitate hauetako bakoitza aplikatzeko baldintzak "Nahaste bituminosoen erabilera errodadura-geruzan" 4. taulan adierazten dira.

Hotzean irekitako nahasteak (AF) errodadura-geruza bezala bakarrik erabili ahal izango dituzte T3B edo T4 trafikoeekin. 4 eta 6 cm bitarteko lodierak izango dituzte. Halaber, edozein trafikomotarako behin-behineko bide-zoru gisa erabili ahal izango dituzte. Dena den, hotzean egindako mikroaglomerazioko geruza bat edo bi aplikatuta dagokion ontzeko epearen ondoren zigilatatu beharko da, MICROF 8, geruza bat bada, edo MICROF 5 eta MICROF 8, bi geruza badira, erabilita.

Hotzean egindako mikroaglomeratuak errodadura-geruza gisa erabili ahal izango dira T4 trafikotarako emultsio-hartxintxaren gainean. MICROF 8 mota erabiliko da.

#### 4.2.2. Tarteko edo oinarrizko geruzak

T3B eta T4 trafikoeekin, Emultsio Bituminosoen Elkarte Teknikoak (ATEB) landutako hartxintxa-emultsioko, hartxintxa eta emultsioa (GEA-1) erabili ahal izango da. Zein baldintzetan aplikatu behar den jakiteko, ikus "Azpiko geruzetan nahaste bituminosoen erabilera" izeneko 5. taula.

Hartxintzar eta emultsioaren gainean ez da geruzarik jarriko, %1 baino gutxiagoko ur hondakina onartuko duen materiala ontzeko epea igaro arte.

### 4.3. HARTXINTXAR BIDEZKO GAINAZALEKO TRATAMENDUAK

Hartxintxarra zabalduz egindako gainazaleko tratamenduen helburua, ibilgailuek zirkulatzeko ehundura egokia eskaini eta bide-zorua iragazkaiztea da, egitura-gaitasuna zuzenean eskaini gabe.

T4 trafikotarako galtzada eta bazterbideetan erabili ahal izango dituzte. Zagor artifizialen gainean hiru geruza jarriko dituzte, emultsio-hartxintxarraren edo zementuarekin tratatutako materialen gainean, bi geruza, eta behin-behineko zigilatzeetan geruza bakarra, hartxintxarra bota aurreko geruza bakarra edo hartxintzar bikoitzeko geruza bakarra.

Gainazaleko tratamenduak, ondoren adieraziko dugun moduan osatuko dira:

- Geruza bakarria zabaltzea, lokailua eta agregakin-hedadura aplikatuz osatzen da.
- Hartxintzar bikoitzeko geruza bakarria zabaltzea, lokailua behin aplikatuz eta bi agregakin-hedadura aplikatuz osatzen da.
- Geruza bikoitza zabaltzea. Lokailua eta agregakina bitan aplikatuz osatzen da.
- Hartxintzara bota aurreko geruza bakarria zabaltzea. Bi agregakin-hedadurek osatzen dute, erdian lokailu-aplikazio bat tartekatuz.
- Sandwich Bikoitza zabaltzea. Hiru agregakin-hedadurek osatzen dute, erdian bi lokailu aplikazio tartekatuz.
- Hiru geruza zabaltzea. Lokailua eta agregakina hirutan aplikatuz osatzen da. - Babeseko geruza ezartzea edo beltzean ezartzea. Aurretik ezarritako edozein geruzaren gainean lokailuzko geruzatze arina ezartzen da, ezarritako geruzak babestu eta hartxintzara ez galtzeko.

Labe elektrikoko altzairutegiko agregakin siderurgikoak tratamendu berezitan erabili ahal izango dira, galtzadan zein bazterbideetan, beti ere "Nahaste bituminosoetarako labe elektrikoko agregakin siderurgikoak" izeneko 3. eranskinean sartzen den artikuluan exijitutako agindu teknikoak betetzen badituzte eta materialen jatorria aitortzen badute, gai hauen inguruan Batasuneko legerian zehazten duten bezala.



Baimendutako abiadura (km/h)	Aldapa (%)	Trafiko astunaren kategoria	Lodiera (cm) eta nahaste bituminoso mota errodadura geruzan								
			ACD	AC 5	PA <sup>(1)</sup>	BBTM A	BBTM B	MAF	TS	MICROF	
> 90	< 5	T00 - T2A		6 (AC22 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)				
		T2B - T3A		5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	6 (AF20)			
		T3B		4 - 5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	4 - 5 (AF12)			(MICROF 8) <sup>(3)</sup>
		T4		6 (AC22 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)				
≤ 90	≥ 5	T00 - T2A		5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	6 <sup>(1)</sup> (AF20)			
		T2B - T3A		4 - 5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	4 - 5 <sup>(2)</sup> (AF12)			(MICROF 8) <sup>(3)</sup>
		T3B		6 (AC22 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	6 (AF20)			
		T4B		4 - 5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	4 - 5 (AF12)			(MICROF 8) <sup>(3)</sup>
≤ 90	≥ 5	T00 - T2A		6 (AC22 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	6 <sup>(1)</sup> (AF20)			
		T2B - T3A		5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	4 - 5 (AF12)			(MICROF 8) <sup>(3)</sup>
		T3B		4 - 5 (AC16 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	6 <sup>(1)</sup> (AF20)			
		T4B		6 (AC22 surf 5)	4 (PA 11)	3 (BBTM 11/8 A)	3 (BBTM 11/8 B)	4 - 5 <sup>(2)</sup> (AF12)			(MICROF 8) <sup>(3)</sup>

BEREZIKI GOMENDAGARRIA

ERABILGARRIA

OHARRAK:

- (1) Kero-azene bituminosoz zigitatua.
- (2) Hartuntzar eta emultsio gainean bakarrrik edo hotzean inekitako nahastean zigitatze gisa.
- (3) Geroza bikotizko produktua zabaltzea, hartuntzar edo emultsio edo zementuarekin tratatutako materialaren gainean, eta geroza hirukoitzaz zagar artifizialaren gainean.

\*GERUZA DRAINATZAILER EBIURUZKO OHAR BEREZIA:

- Bakarrrik erabilt ahal izango dira, bideko IMED 2.000 ibilgailu baino handiagoa bada eta, azterian bererdi batek aurkitutako edferazten ez bada, trafiko astuneko maila T00 baino txikiagoa bada. Dena den, ondoren aipatutako dituzten kasietan ez dituzte erabiltzko:
- Iztza edo elurra malz egiten duen tokitan.
- Behurgune itxiak (R<200 m) eta T2 edo gehiagoko trafiko astuneko maila dituzten bide-zatitan.
- Lurreko sarbide asko dituzten zonetan (km bakotzako sarbide bat baino gehiago), ez badira sarera-puntuaren aurreko 100 metroak zolatzen.
- Bide-zatitaren lehen urteetan inguruko obrek eragotzi dituzten zonetan.
- Iztza-eraztoak izan ditzaketen bide-tauletan, hiri barruko bideetan edo tuneletan.
- Kmi bateko luzerara heltzen ez diren bide-zatitan, nahaste drainatzaileak dituzten beste hainbat bide-zatitan jarraipena ez badira edo drainatzea erraztu behar dituzten puntu espezifikoak ez badira.

4. Taula. Nahaste bituminosoen erabilera errodadura geruza

Ezkerretza	Nahasteko mihata gailu geruzak	Trakiko autokontrola maila	Nahasteko bituminosoa mihata eta hedatzea				GIF
			AC 5	AC 10	AC 15	AC MAM	
Tartekoak <sup>(1)</sup>	AC 5 ó 0	100 - T3A	6 - 9 (AC22 bit. S)	5 (AC 16 bit. D) ó 6 - 9 (AC22 bit. D)	7 - 9 (AC bit. 22 MAM)		
		T3B	5 (AC 16 bit. S) ó 6 - 9 (AC22 bit. S)				
	T4	4 - 5 (AC 16 bit. S) ó 6 - 9 (AC22 bit. S)	4 - 5 (AC 16 bit. D) ó 6 - 9 (AC22 bit. D)				
	PA ó BESTM A ó B	100 - T3A	7 - 9 (AC22 bit. S)	6 - 9 (AC22 bit. D)	7 - 9 (AC bit. 22 MAM)		
T3B - T4B		6 - 9 (AC22 bit. S)	6 - 9 (AC22 bit. D)				
Oinarritzeak <sup>(2)</sup>	AC 5 ó 0	100 - T3A	5 (AC 16 bit. S) ó 6 - 9 (AC22 bit. S)	5 (AC 16 bit. D) ó 6 - 9 (AC22 bit. D)	7 - 13 (AC bit. 22 MAM)	5-9 (GEA 1)	
		T3B - T4	7 - 9 (AC 22 base S) ó 8 - 15 (AC32 base S)		7 - 9 (AC 22 base S) ó 8 - 15 (AC32 base S)		
	AC MAM	100 - T3A	6 - 9 (AC 22 bit. S) ó 8 - 15 (AC32 base S)		7 - 13 (AC base 22 MAM)		
		GIF			7 - 13 (AC base 22 MAM)	5-12 (GEA 1)	



ERABIL GARRIA  
 (1) Geruzak hiru eremu daitezke: Beheko geruzak, tarteko geruzak, goiko geruzak. Geruzak horien bakoitzak bere bituminosoa bereizita erabilgarria da.  
 (2) Oinarritzeak geruzak hiru eremu daitezke: Beheko geruzak, tarteko geruzak, goiko geruzak. Geruzak horien bakoitzak bere bituminosoa bereizita erabilgarria da.

5.Taula. Azpiko geruzetan nahaste bituminosoen erabilera

#### 4.4. HARTXINTXAR ETA ZEMENTUA

PG-3aren 513. artikuluan definitutako arteen, GC20 mota erabiliko dute edozein trafikotarako. Hartxintzar eta zementuzko materialerako geruza trinkotuak 20 eta 30 cm bitarteko lodiera izango du.

Hartxintzar eta zementuzko materiala freskoan aurrepitzatuko da, 2 eta 3 m bitarteko distantzian. Materiala aurrepitzatu ondoren, ez dute, PG-3aren 513. artikuluan adierazitako erresistentzien goiko muga betetzeko exijituko. Hartxintzar eta zementuzko materiala, zehaztutakoak baino erresistentzia handiagoekin erabiltzeak, ez du sekzioen katalogoan adierazten dituzten geruzen lodiera murriztea ekarriko.

#### 4.5. ZEMENTU LURZORUA

Edozein trafiko-motarako, PG-3aren 513. artikuluan definitutako SC40 eta SC20 motako zementu-lurzoruak erabili ahal izango dituzte. T1 trafikoekin edo handiagoekin, zementulurzorua zentrolean fabrikatuko dute. Trafiko txikiagoekin, eta obra-unitatearen kalitatea bermatuko duten ekipoak erabiltzen badituzte, tokian bertan fabrikatzea ere onartuko dute. Obra-unitatearen kalitatea, frogatze-zatian egiaztatu beharko da. Bestalde, zementulurzorua tokian bertan fabrikatzen badute, obra-unitate honetarako "Bide-zoruko sekzioak galtzadan" izeneko 9. kapituluaren definitutako sekzioetan adierazitako gutxieneko lodierak 3 cm handiagoak izango dira.

Zementu-lurzoruko materialerako geruza trinkotuek 20 eta 30 cm arteko lodiera izango dute.

5.taulan adierazitako egoeretan, zementu-lurzorua freskoan aurrepitzatuko da, 3 metroko distantziara. Egoera hauetan ez dute PG-3aren 513. artikuluan adierazitako goiko erresistentzia-muga betetzeko exijituko.

Zementu-lurzoruaren ordezt hartxintzar eta zementuzko materiala jartzean, galtzadan GC25 sektorea erabiliko dute eta ez dituzte haustura-aurpegiaren ehunekoari buruzko aginduak exijituko.

TRAFIKOA	ZONA KLIMATIKOA	RCS7 < 4,5 MPa	RCS7 ≥ 4,5 MPa
ALTUA (> T3)	KONTINENTALA	Derrigorrezkoa**	Derrigorrezkoa
	ITSASERTZEKOA	Gomendagarria**	
BAXUA (≤ T3)	KONTINENTALA	Gomendagarria	Gomendagarria (**)
	ITSASERTZEKOA	Ez da beharrezkoa	

RCS7: Zementuarekin tratatutako materialaren 7 eguneko konprimitze-erresistentzia sinplea.

\*\* Ez da beharrezkoa MB lodiera ≥ 20 cm denetan.

(\*\*) Ez da beharrezkoa T4B Proiektu Trafikotarako.

#### 6.Taula. Nahaste bituminosoaren azpian zuzenean ezarritako zementu-lurzoruko geruzak aurrepitzatzeko baldintzak

#### 4.6. ZAGOR ARTIFIZIALA

PG-3aren 510. artikulua arabera, ZA25 edo ZA20 motako zagorrak erabiliko dituzte.

Zagor artifizialak, gainera, funtzio drainatzailea edo antikapilarra bete behar duen kasuetan, mota bakoitzerako zehaztutako ardatzaren erdiaren azpitik dagoen granulometriarekin eratuko da.

Zagor-geruza bi geruzetan ezartzen badute, behekorako, ZN40 edo ZN25 moten zagor naturalak ere erabil daitezke (PG-3aren 510. art.); kasu horretan, zagor artifizialaren goiko geruza 10 cm lodituko da.

Geruza pikortatuek, orokorrean, 20 eta 40 cm bitarteko lodiera izango dute. 30 cm edo gutxiagoko lodierak, geruza bakar batean egingo dira; handiagoak bitan.

Lodiera berarekin, eta materialaren erabilgarritasunak hala justifikatzen duenean, zagor artifizialaren ordez, labe elektrikoko altzairutegi-zepa, eraikuntza eta eraisteko agregakin birziklatua (RCD), edo material hau agregakin natural edo artifizialekin nahastua erabil daiteke, beti ere zepak edo material konbinatuak, 4. eranskinaren edo 5. eranskinaren (eraikuntza eta eraisteko agregakin birziklatua (RCD)) espezifikazioak eta PG-3aren 510. artikuluari dagozkionak (honek aldatzen ez baditu) betetzen badituzte.

Labe elektrikoko altzairugintza-zeparako ere honako mugatze hauek hartuko dira kontuan:

- Labe elektrikoko altzairutegiko agregakin siderurgikoekin egindako zelaigune hobetua eta geruza pikortatuen lodierak ezingo du 70 cm baino handiagoa izan. Geruza, labe elektrikoko altzairutegiko agregakin siderurgikoak eta beste hainbat agregakin nahasiz egiten dutenean, lodiera handitu ahal izango da, labe elektrikoko altzairutegiko agregakin siderurgikoen ehunekoaren arabera.
- Ez dituzte, zintarriz mugatutako oinarri edo azpioinarri bezalako zona mututan erabiliko. Egituratik 50 m-ra erabiliko ez dituzten zubien estradosetan ez dituzte erabiliko.
- Ezingo dituzte erabili, 100 urteko birgertatze-aldia duten urek gainezka egin dezaketen errepidetan. Hauek, Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean zehazten dira.
- Erabiliko dituzten geruzetan, hauek behar bezala drainatu behar dira, urak bertan gera ez daitezen.
- Elementu galvanizatuek edo inguruan dauden aluminiozko hodiekin eragin dezaketen korrosioa aztertu behar da.

Eraikuntza eta eraisteko agregakin birziklatua (RCD) ezingo da erabili T00 eta T1 bitarteko trafiko astuneko kategoriek.

#### 4.7. PRODUKTUAK ZABALTZEA

Bereziki, hornidura egokiak behar bezala burutzen direla eta erabiltzen direla zaindu behar da, produktuak zabaltzeak garrantzi handia duelako bide-zoruaren jokabidean.

##### 4.7.1. Itsasteko produktuak zabaltzea

PG-3aren 531. artikuluan adierazitakoaren arabera, itsaspen-produktua zabalduko da bidezoruaren bat egindako geruzen gainean (zementu-lurzorua, hartxintzar eta zementua edo nahaste bituminosoa). Bereziki, emulsio termoitsaskorrak erabiltzea gomendatzen dute.

##### 4.7.2. Inprimatzeko produktuak zabaltzea

PG-3aren 530. artikuluan adierazitakoaren arabera, nahaste bituminosoko geruza edo gainazaleko tratamendua hartuko duten zagor artifizialen gainean inprimatzeko produktua zabalduko dute.

##### 4.7.3. Ontzeko produktuak zabaltzea

PG-3aren 532. artikuluan adierazitakoaren arabera, konglomeratzaile hidraulikoekin tratatutako material guztien gainean, ontzeko produktua zabalduko dute. Ontzeko produktua zabaldu ondoren, eta gainean geruza ezarri aurretik edo itsasteko produktua zabaldu aurretik ondo erraztu behar da.

## 5. SEKZIOEN KATALOGOA

Ondoren erakutsiko ditugun irudietan, bide-zoru malgu, erdimalgu eta erdizurruntarako soluzio-katalogoak eskaintzen dira. Bide-zoru zurrunak proiektatu behar izanez gero, Sustapen Ministerioaren “Bide-zoru sekzioak” izeneko 6.1-IC Arauaren arabera egingo da. Arau honetan bildutako bide-zoru moten definizioa 9.1 taulan jasotzen da. Irizpide tekniko, ekonomiko eta ingurumenari lotutakoak kontuan hartuta, kasu bakoitzean soluzio egokiena aukeratuko dute, eta dagozkion azterlan eta analisiak, eraikuntza-proiektuko bide-zoruen eranskinean azalduko dira.

MOTA	BIDE ZORU MOTAREN DESKRIBAPENA	AZPIMOTA	EZAUGARRIAK
1	Bide-zoru malgu eta erdimalguak	1.1	Nahaste bituminosoa geruza pikortatuaren gainean
		1.2	Asfaltozko bide-zorua
2	Bide-zoru erdizurrunik, zementuarekin tratatutako materialekin	2.1	Nahaste bituminosoa zementuzko lurzorua gainean
		2.2	Nahaste bituminosoa, harbintzar eta zementuaren, eta zementuzko lurzorua gainean
		2.3	Nahaste bituminosoa, harbintzar eta zementuaren, eta zelaigune gainean

7.Taula.Sekzio moten definizioak

Katalogoetako bide-zoru sekzioei dagokienean, honako hau hartu behar da kontuan:

- Sekzioak, Proiektu Trafikoko kategoriaren eta Zelaigune Hobetuko kategoriaren arabera definitzen dira.
- Definitutako sekzioak, proiektu-erreiari buruzkoak dira; beste erreitan bestelako soluzioak erabil daitezke, “Eraikuntzako alderdiak” izeneko 12. kapituluari adierazitakoa betez.
- Katalogoetan adierazitakoak, zeharkako sekzioko edozein puntutan gutxienezko lodierak dira, eta zentimetrotan definitzen dituzte.
- Bide-zoruetako sekzioak osatzen dituzten materialen ezaugarriak, “Bide-zorurako materialak” izeneko 7. kapituluari definitzen dituzte.

### 5.1.1 motako sekzioak

Material pikortatuen gainean nahaste bituminosoz osatutako bide-zoru malgu edo erdimalguak dira. 1.1 motako sekzioak aukeratu ahal izango dira. Bertan nahaste bituminosoa zagor artifizialeko geruza pikortatuen gainean jartzen dira. Bestela, 1.2 motako sekzioak aukeratu daitezke. Bertan nahaste bituminosoa zuzenean zelaigunearen gainean jartzen dira. 1.2 motako sekzioak, EX3 kategoriako zelaiguneetan bakarrik proiektatu dituzte. Bere goialdea, S-EST3 motako zementuarekin egonkortutako lurzoruek osatuko dute.

Katalogoak definitzean, oinarrizko geruzetako beroan egindako nahaste bituminosoak nagusiki erditrinkoak (S) dira. Beraz, geruza hauen ordez nahaste bituminoso lodiak (G) jartzen badituzte, katalogoan definitutakoa baino gutxienez 3 cm lodiagoa izango da.

Aurreko nahaste bituminosoez gain, tarteko eta oinarrizko geruzetan modulu altuko nahaste bituminosoak erabili ahal izango dira. Kasu horretan, katalogoan definitutakoarekin alderatuta, biek elkarrekin osatzen duten lodiera %20 murriztu daiteke.

T3B eta T4 trafiko-kategorietan, nahaste bituminosoen malgu samarrak izatea komeni da. Horretarako, hotzean egindako nahasteak, edo nahastearen pisuaren %4,75 baino betun gehiago duten beroan egindako nahasteak erabili daitezke. Hotzean egindako nahasteak erabiltzen badira, sekzio-moten katalogoan adierazitako lodiera berarekin proiektatuko dituzte. T4B kategorian, erroadura bituminosoen ordez lurrazaleko tratamendua ezar daiteke.

1.1.sekzioa mota





		EX1	EX2	EX3 (*)
T00		-	37 25	32 25
T0		-	33 25	28 25
T1	T1A	-	29 25	34 25
	T1B	-	26 25	22 25
T2	T2A	-	24 25	19 25
	T2B	20 35	20 25	16 25
T3	T3A	17 35	17 25	-
	T3B	15 35	14 25	-
T4	T4A	10 40	10 30	-
	T4B	5 40	5 30	-

(\*) 4 moteko luzeruz aukeraturiko gailidea duten Zelaiguna Hobetuko sekzioak bakarrik.  
OHARRA: Lodierak cm-tan.

8.Taula.1.1 sekzio motak



1.2.sekzio mota

		EX1	EX2	EX3 (*)
T00		-	-	36 
T0		-	-	32 
T1	T1A	-	-	28 
	T1B	-	-	25 
T2		-	-	-
T3		-	-	-
T4		-	-	-

(\*) S-EST3 motako tokian bertan egonkortutako luzoruko goialdea duten Zelaigune Hobetuko sekzioak bakarrik. OHARRA: Lodiak cm-tan.

9. Taula. 1.2 Sekzio motak

### 5.2.2 motako sekzioak

Zementuarekin tratatutako materialez osatutako geruzen gainean jarritako nahaste bituminosoz osatutako bide-zoruak dira. 2.1 motako sekzioak aukera daitezke. Bertan, nahaste bituminosoak zementu-lurzoruzko oinarriaren gainean jartzen dira. Bestela, 2.2 motako sekzioak aukera daitezke. Kasu honetan nahaste bituminosoak, hartxintzar eta zementuzko oinarriaren eta zementu-lurzoruko azpionarriaren gainean jartzen dira. Bestela, 2.3 motako sekzioak aukera daitezke. Hemen, nahaste bituminosoak, zuzenean zelaigunearen gainean dagoen hartxintzar eta zementuzko oinarri baten gainean jartzen dira. 2.3 motako sekzioak, EX3 kategoriako zelaiguneetan bakarrik proiektatuko dituzte. Bere goialdea, S-EST3 motako zementuarekin egonkortutako lurzoruek osatuko dute.

Zementu-lurzoruaren ordezt hartxintzar eta zementua jarri ahal izango da, katalogoan adierazitako lodierak mantenduz, eta beti ere material-erabilgarritasunek horrela justifikatzen badute eta “Bide-zorurako materialak” izeneko 7. kapituluaren adierazitako arauak betetzen badituzte.

Orokorrean, zementuarekin tratatutako materialaren eta errodadura-geruzaren artean kokatutako geruza bituminosoetan, nahaste erditrinkoak (S) erabiliko dituzte. Halaber, nahaste bituminoso lodiak (G) erabili ahal izango dituzte, beti ere agregakinen pisuaren gaineko %4,5 baino gehiagoko lotiarekin dosifikatzen badira.

T2B trafiko-kategoriarekin edo handiagoarekin 2.1 motako bide-zoruko sekzioetan, zementu-lurzoruko oinarriaren gainean modulu altuko nahaste bituminosoak (MAM) erabiltzea ahalbidetuko dute, katalogoan nahaste bituminosoetarako adierazitako guztizko lodiera 2 cm-tan murriztuz.





## 2.1.motako sekzioa

		EX1	EX2	EX3
T00		--		
T0		--		
T1	T1A	--		
	T1B	--		
T2	T2A	--		
	T2B			
T3	T3A			--
	T3B			--
T4	T4A			--
	T4B			--

OHARRA: Lodierak cm-tan.





10.Taula. 2.1 Sekzio mota

2.2.motako sekzioa

	EX1	EX2	EX3
T00	--		--
T0	--		--
T1	--		--
T2	--		--
T3	--	--	--
T4	--	--	--

11.Taula. 2.2 Sekzio motak

### 2.3 sekzio mota

	EX1	EX2	EX3 (*)
T00	--	--	
T0	--	--	
T1	--	--	
T2	--	--	
T3	--	--	--
T4	--	--	--

12. Taula. 2.3 Sekzio mota

Deskribatutako material katalogotik, errodadura geruzarako beroan egindako nahaste bituminosoak erabiliko dira. Nahiz eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bide zoruak neurtzeko arauak, hotzean egindako nahaste bituminosoak ere erabili daitezkeela adierazten duen.

Azaldutako pausuak jarraituta eta tauletako baliok hartuta, proiektuko sekzioen katalogoa jarraian azalduko da laburpen gisa (ikusi 8.Taula).


SEKZIOEN KATALOGOA					
T4	T4A	A AUKERA		B AUKERA	
		Nahaste bituminosoa	10cm	Nahaste bituminosoa	12cm
	Zagor artifiziala	30cm	Zementu lurzorua	25cm	
	T4B	Nahaste bituminosoa	5cm	Nahaste bituminosoa	11cm
		Zagor artifiziala	30cm	Zementu lurzorua	25cm

**13.Taula. Sekzioen katalogoaren laburpena**

Gorriaz azpimarratuta dauden sekzioekin egingo dira kalkuluak eta horietako bat aukeratuko da aparkalekuaren bide zoruaren sekziarako.

### 6. BIDE-ZORU SEKZIOAREN KALKULUA

Lurzoru egokia eta EX2 zelaigune motari dagokion Zelaigune Hobetuko Sekzioa.(ikusi 3.taula)



T4B trafiko kategorია eta EX2 zelaigune motari dagokion Zelaigune hobetuko Sekzioak aukeratzeko bi aukera desberdinen artean ikasketa egin beharko da.(ikusi 2.1 eta 2.2 sekzio moten taulak)

<p>"A" Aukera</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 80%;">Nahaste bituminosoa</td> <td style="width: 20%;">5cm</td> </tr> <tr> <td>Zagor artifiziala</td> <td>25cm</td> </tr> </table>	Nahaste bituminosoa	5cm	Zagor artifiziala	25cm	<p>"B" Aukera</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 80%;">Nahaste bituminosoa</td> <td style="width: 20%;">11cm</td> </tr> <tr> <td>Zementu lurzorua</td> <td>25cm</td> </tr> </table>	Nahaste bituminosoa	11cm	Zementu lurzorua	25cm
Nahaste bituminosoa	5cm								
Zagor artifiziala	25cm								
Nahaste bituminosoa	11cm								
Zementu lurzorua	25cm								

#### "A" Aukerarentzako ikasketa (ikusi 6. Taula)

		4-5 cm AC16 suRf D
Nahaste bituminosoa	5cm	4-5 cm AC16 suRf S
Zagor artifiziala		3cm BBTM 11/8A

BBTM 11/8A izeneko aukera baztertuko da, beharrezkoak diren 5 cm-ak baino lodiera txikiagoa duelako. Eta beste bien artean, berdina da zein aukeratzeko. Biak beroan egindako nahaste bituminosoa direlako.

**“B” Aukerarentzako ikasketa** (ikusi 6. eta 7. Taulak)

11cm tako nahaste bituminosorako aukera desberdinak

Errodadura geruza	Tarteko geruza	Azpiko geruza
4-5 cm AC16 suRf D	4-5 cm AC16 bin S/D	7-9 cm AC22 base S/G
4-5 cm AC16 suRf S	6-9 cm AC22 bin S/D	8-15 cm AC32 base S/G
3cm BBTM 11/8A	6-9 cm AC22 bin S	

Aurreko aukerak beraien artean konbinatuz gero, 11cm-tako nahaste bituminosoa lortzeko:

Konbinazioak	Errodadura geruza	Tarteko geruza	Azpiko geruza
1	5 cm AC16 surf D	6 cm AC16 bin S/D	-
2	5 cm AC16 surf S	6 cm AC22 bin S/D	-
3	3cm BBTM 11/8A	-	8 cm AC32 base S/G

Proiektuko aparkalekuko bide-zoruaren sekzioa egoera guztien artean aukeratzeko orduan, eraikitzeko erraztasuna eta geruza eraikitzeko kostuak izango dira irizpide nagusiak.

Beraz, azaldutako irizpideak jarraituta aparkalekuaren bide zoruaren sekzioa jarraian adierazten dena izango da. Bere funtzionamendu egokia bermatzen dituen ontze, itsaste zein inprimatze produktuak aplikatuta.

Inprimatzeko eta itsasteko produktuak	AC16 surf S/D	5 cm
Ontzeko produktuak	Zagor artifiziala	30 cm
Ontzeko produktuak	3 ó 4	50 cm
Ontzeko produktuak	1	> 100cm